

# aikor

TOKIKOM

2025ko urtarrila • #254

ASTIKA HERRIA

**Bizitza komunitarioa  
20 urtez**

Ezagutu  
zure herrian  
dauden taldeak  
edo egin zure  
proposamena!

*mendian*

*gurasoekin*

# Eta euskaraz egiten badugu?

*jolasean*

*josten*

 [mintzalaguna.eus](http://mintzalaguna.eus)



Eman izena!

# aikor.

**Argitaratzailea:**

**TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa** (Lagatzu, Zorritzketan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

**Zuzendaria:**

Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:**

Itxaso Marina

**Maketatzailea:**

Aner Mentxaka

**Publizitatea:**

Ruth Bilbao (688 782 642)

**Zuzentzaileak:**

Iñaki Astorkiza  
Oihana Astobieta

**Kolaboratzaileak:**

Imanol Alvarez  
Idoia Andres  
Juanjo Ortiz  
@txiribita\_mundi  
Xabier Diaz  
Iñaki Olabarrieta  
Jose Angel Mentxaka

**Inprimategia:**

Gertu

**Banaketa:**

Eragin

**Ale kopurua:**

8.000

**Lege gordailua:**

BI 137-02 ISSN 1578-9322

[aikortxori@aikor.com](mailto:aikortxori@aikor.com)

688 864 135 · 747 406 561

**aikor aldizkariak** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

**CC BY-SA 3.0**

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



## SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Gutuna
- 6 Berri laburrak
- 12 **Txorierriko euskal eskola publikoak**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 15 Sorlekua  
**"Nire mahaikidea"**
- 16 Gaztea eta  
**Berart Gartzia Gezuraga**
- 18 Txoriberri
- 20 **Astika Herria**
- 24 **Agur zorriei; egin irribarre!**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 26 **Fernando Zamora**
- 28 **Berbalagun**
- 29 **Pentsiodunen Herri Ekimen Legegilea**
- 30 EMAUS
- 31 Teknologia  
**DNA book-etik gertuago?**
- 32 Menditik Patxadaz  
**P lerroko bunkerrak Nafarroan (eta II)**
- 34 Herbarioa  
**Asentsioa**
- 36 Sukaldaritzza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Otsaileko agenda

**DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA

**IMANOL ALVAREZ**  
Filosofia irakaslea

## Icebergak berotze globalean

**I**cebergak gara, eta funtsezkoa da hortaz konturatzea. Icebergak gara, baldintzatzen gaituzten faktore nagusiak ur azpian daudelako, gainazalera mugatzen diren analisisietatik harago. Gatazken zergatiak uretatik kanpo geratzen den kontzientziaren logikotasunean bilatzen jarraitu dezakegu, konponbideak bezala, eta galduta edo noraezean jarraituko dugu. Inkontzientea eta kontzientearen arteko interakzioa ulertu ezean, urtzen jarraituko duelako garen izotz blokeak. Ingurukoarekin talka egiten dugunean ere, kontaktua ur azpian dagoelako gehienetan. Emozionalak gara oinarrian, arrazionalak gero.


Icebergaren metafora ez da berria, hori guztia ulertzeko. Baina berotze globalaren erdian gaudela gehitu nahi diot. Arazoak ikusezina den tenperaturaren duelako jatorria, eta hura gure jardunaren ondorio zuzena delako. Gure gatazka pertsonaletan ere, efektuetara jotzeak ez gaitu urrutira eramango; kausetara joan beharra dago beti. Ezinbestekoa da ur azpian dagoen iceberg zatian eragitea, ulermenaren bidetik inkontzientea kontziente bihurtuta urazaleratuz, eta gu garen icebergak besteekin eta itsasoarekin duen harremana aztertzea.

Osasun mentalaren gaiak tabu izateari uztea pozgarria da, emozioek egin duten bideari jarraiki. Baina zabalkun-

deak arriskuak dakartza berarekin beti: negozio bilakatzea eta bezeroa eskaintza zabalegi batean galtzea, besteak beste. Terapia on batek hiru ezaugarri izan behar dituela esango nuke: norbere burua ezagutzen laguntzea (luzea), banakoak testuinguruarekin duen harremana kontuan hartzea (konplexua) eta gizakiaren alderdi inkontzientea presente izatea (gogorra).

Zenbaki magikoarekin jarraituz, beste hainbeste arrisku edo zailtasun azpimarratuko nituzke. Lehena, faktore horietariko baten batekin gehiegi tematzea besteak ahaztuz. Bigarrena, bakoitzaren erresistentziak (gure negazionista partikularra): beldurra eta deseroso sentiarazten gaituena ikusi eta onartzeko zailtasunak. Azkena, lasterbideak hartzeko tentazioa, sasi-terapia batetik bestera, noraezean ibiltzera kondenatu ahal gaituena. Hiru faktore horiek sarritan konbinatu ere konbinatzen dira.

Berotze globalera bueltatuz, hausnarketa konplexu eta sakon baten ondorioz egin beharreko aldaketen orde, bere petatxua topatuko du gizadiak. Gaurko konponbidea, biharko arazoa. Gu garen izotz blokeak urtzen jarraituko duen bezala, barrura begiratzen ez dugun bitartean. Norbere burua sakonki ezagutu gabe bizi gaitzkeelako ere, baina ulermenak gauzak hobeto kudeatzeko aukera ematen digu beti.



Kezkaren bat adierazi nahi baduzu edo zerbait esateko baduzu, gutuna idatzi ahal duzu, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

GUTUNA

**TXORIERRIKO GAZTE  
KOORDINADORA SOZIALISTA**

# Zabaloetxeko gazteen kontrako kriminalizazioari ez!



**A**zken urteetan pairatzen ari garen krisi testuingurua sekulako inpaktua izaten ari da langileon bizitzan. Langileon pobretze progresiboaren seinaleak, estatuen autoritaris-moranzko eboluzioa eta gerra, non-nahi. Fenomeno horien inguruko albistek betetzen dituzte egunez egun denetariko albistegi eta egunkariak. Horrek, egoera honi aurre egingo dion alternatiba politiko iraultzaile baten ausentziarekin batera, testuinguru ezin hobea ireki du ideologia

erreakzionarioen hedapenerako. Nazionalismo indarberritu baten itzalpean areagotu egiten da bestearekiko bazterkeria eta gorrotoa. Segurtasunaren izenean, gero eta kolpatuago bizi dira han eta hemengo mi-granteak, maila mediatiko zein sozialean.

Horren adibide garbi bezala har dezakegu Loiuko Zabaloetxe zentroan dauden adingabeen egoera. Maila sozial orokorrean pairatzen dituzten gehiegikeriaz eta jazarpenaz gain, muturreko egoeran bizitzera kondenatuta daude Txorierrin. Herritik ibiltzeko de-

bekua, eskualdetik ez ibiltzeko agindua, beti hezitzaileek lagunduta ibiltzeko derrigortasuna, begirada arrazistak, autobusek haiek ikusi eta geltokiaz paso egitea bezalakoak bizi dituzte egunez egun. Guzti hori, gainera, bazterkeria eta isolamendu sozial sakon eta orokortu baten erdian.

Txorierriko GKStik ozen salatu nahi dugu gazte hauek bizi duten egoera zein horren atzean dagoen testuinguru orokorra. Onartezina da gazte hauek beren jatorriagatik edo kulturagatik horrela diskriminatu eta baztertea. Halaber, debeku eta arau hauen erantzule zuzenak diren Bizkaiko Foru Aldundia eta Loiuko Udala seinalatu nahi ditugu, arrazakeria estrukturalaren ezinbesteko berme bezala jarduten dutelako. Arrazakeriaren eta aurrean dugu olatu erreakzionarioaren aurrean antolatzea eta eraso arrazista oro borrokatzea dagokigu.

Zabaloetxeko gazteen kontrako kriminalizazioari ez! Arrazakeria instituzionala borrokatu!



## Mugikortasun urriko pertsonen- tzako aldagela Derioko kiroldegian

Derioko Udalak prentsa-ohar baten bidez jakinarazi duenez, udal-kiroldegiko aldageletako bat eraberritu dute, leku irisgarria, inklusibo eta eroso bilakatzeko eta mugikortasun urriko pertsonen euren burua garbitu ahal izateko, kiroldegiko abonatuak izan edo ez. Eraberritze-lanetan 46.125 euro ipini ditu udalak, eta bere esanetan, neurriak erantzuna ematen die bizilagunen eskaerari zein erakundeak oztopo arkitektonikoak kendu eta aukera-berdintasuna sustatzeko gogoari.

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeaz gainera, garabi berezi bat ipini da mugikortasun urriko edo premia bereziko pertsonen autonomia eta erosotasuna errazteko. Nahiz eta aldagela erabiltzeko alde zuzeneko hitzordua eskatu behar ez den, udalak kiroldegira deitzeko gomendioa egin du kudeaketa hobeto egiteko. Telefonoa da 944 540 159. Beste alde batetik, ate automatikoak ipini dira kiroldegiko sarreran eta irteeran, herritar guztiei eraikinerako sarbidea errazteko (30.875 euro), eta mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak atondu dira kanpoko aparkalekuan.

## BERRI LABURRAK



### Jesus Loroñoren jaiotzaren mendeurrena gogora ekarri dute Larrabetzun

Ehun urte bete dira Jesus Loroño Larrabetzuko txirrindularia jaio zela (1925-2025), eta Larrabetzun zenbait ekintza egin dira bere jaiotzaren mendeurrenaren harira. Uritarrak futbol-klubak eta Mikel Artetxe txirrindularitza-elkartek antolatuta, urtarrilaren 12an, Loroñori omenaldia egin zioten Elizalden, bere izena duen enparantzan hain zuzen, eta gero txirrindularitza-martxa egon zen. Arratsaldean, bestalde, futbol-partida izan zen Errebalen, eta ohorezko sarea Josu Loroño kazetariak egin zuen.

Larrabetzuko ekintzez gainera, aurreko astean ere ekintzak izan ziren Larra-

betzuko txirrindularia gogora ekartzeko. Besteak beste, lore-eskaintza egin zen Sollube mendiko gailurrean Loroñoren omenez ipinitako monumentuan, eta hitzaldia izan zen EHUK Bilbon duen areto nagusian. Beste batzuen artean, hitzaldian parte hartu zuten Miguel Indurainek, Abraham Olanok, Marino Lejarretak eta Julian Gorospek. Loroño euskal erreferente izan zen txirrindularitzan, eta lortutako garaipen artean azpimarratu daitezke Tourreko mendiko etapa irabazi zuela 1953an, eta Espainiako Itzulua, 1957an. Larrabetzuko txirrindularia 1998an hil zen.

### Goronda Beko kiroldegiko makinak berritu ditu Sondikako Udalak

Prentsa-ohar baten bidez jakinarazi moduan, Sondikako Udalak 15.000 euroko inbertsioa egin du Goronda Beko kiroldegiko makinak berritzeko. “Ekinmen honen bidez, herritarrei kalitateko instalazioak eskaintzeko helburua du udal-taldeak, ohiturak osasungarriak sustatzeko eta kirol-praktika seguru eta eraginkorrak bultzatzeko”, adierazi dute.

Azaldu moduan, indar-entrenamendurako elementuak berritu dituzte, hala nola halterak, kettlebellak, barra olimpiko bat, boxeozaku bat eta txaleko lastratuak. Kardio-eraketak egiteko makineria ere berritu da, esaterako eliptikak eta spinning-bizikletak. Era berean, markagailu berria ipini da kiroldegian. “Eki-

pamendu berriak material zaharkitua ordezkatu du, erabiltzaileen esperientzia hobetzeko eta kirol-jarduera modernoagoa eta seguruagoa sustatzeko”.

Makinak berritzeko diru-partida 2024ko aurrekontuen baitan egon da. Hala ere, aipatutakoaren arabera, udalak 2025eko aurrekontuetan ere aurreikusita dauka diru-partida bat, gimnasioaren materiala berritzen eta handitzen jarraitzeko. “Gure helburua da kirol-instalazio modernoak eskaintzea, herritarren beharrak betetzen dituztenak. Egindako hobekuntzak udal-gimnasioaren zerbitzuak hobetzen jarraitzeko lehen urratsa baino ez dira”, esan du Naia Landa Sondikako alkateak.

KAFETEGIA · OKINDEGIA

**LA MODERNA**

Egunero, 06:00etatik zabalik

Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

## BERRI LABURRAK



### Osasun publikoaren aldeko manifestazioetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei

OPAk, Osasun Publikoaren Defentsarako Herri Plataformen Koordinakundeak, manifestaziora deitu du otsailaren 1erako. Larrabetzuko LOPA dago koordinakundearen barruan. Manifestazioa Bilbon, Donostian eta Gasteizen egingo dute, eta herritarrei deia egin diete ekintzetan parte hartu dezaten. “Osasun publikoaren pribatizazioak eta murrizketak politikek jarraitzen dute gure osasunerako eskubidea mehatxatzen. Hortaz, osasun publikoa, unibertsala eta kalitatekoa defendatu behar dugu”.

Urtarrilaren 16an agerraldia egin zuten Barakaldon, Gasteizen eta Tolosan. Adierazi zutenenez, “Eusko Jaurlaritza estrategia orokor bat garatzen ari da, osasun-sistema publikoa desagiteko eta pribatizazioa bultzatzeko. Estrategia horrek zerbitzu publikoaren kalitatea hondatzen du, herritarren osasuna kaltetu, osasun-langileen lan-baldintzak okerragotu, eta kudeaketa autoritarioko ereduak sendotzen du; eta azken horrek herritarren

parte hartzeko eskubidea urratzen du”. Koordinakundearen esanetan, ondorioak bereziki Lehen Arretan dira larriak. “Arreta sanitarioaren % 80 artatzen du, eta bere funtsezko elementu gehienak bertan behera utzi dira: eskuragarritasuna, unibertsaltasuna, integritasuna, arretaren jarraitutasuna, ekitatea eta orientabide komunitarioa”.

Beste alde batetik, adierazi dute azken hilabeteetan Osasun Sailburua ahalegintzen dabilela Osakidetzaaren arazoak zuzentzen ari diren ideia helarazten. “Osasun publikoaren sistema hobetzeko, diru gehiago inbertituko dela agindu du, eta zifrak jakinarazi ditu itzarote-zerrenden ustezko gutxitzei eta osasun pribatura bideratzei buruz. Sailburuak ez duela egia esan salatzen dugu, eta zifrak nahiera manipulatu dituela. Badakigu 19 hilabeteko itzarote-zerrendak daudela, eta osasun pribaturako desbideraketak gutxitzeari dagokionez, azaldu beharko du 2025ean horretara bideratutako au-

rrekontua zergatik, murriztu beharrean, handitu den”. Horri lotuta, eskatu diete datuak jakinarazteko, “daten, zentroen, espezialitateen eta abarren arabera zehaztuta”, eta itzarote-zerrenden kontrol publikoa ahalbidetzeko.

Beste aldetik, koordinakundeak esan du sailburuak bere egin duela lehengo sailburuek hasitako desagite-estrategia, “osasun-zentroen eta etengabeko arreta-guneen ordutegiak murriztuz eta zentroak itxiz”. Azaldutakoaren arabera, Gabonetan 110 osasun-zentroren ordutegia murriztu zen. “Eta hori arnas infekzioek gora egin zuten testuinguruan. Medikorik gabeko zentroak, beste udalerritatuak joan behar izatea arreta jasotzera, hainbat espezialitatetan profesionalik ez egotea, lan-gainkarga eta prekarietatea, finantzaketa gutxi... Betikoa. Azken egunetan zabalitzen dabilzan kanpainaren helburua da herritarren erantzuna neutralizatzea, batez ere otsailaren 1eko manifestazioen aurrean”.

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak

640 26 84 15  
94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
Lezama

**TXORIERRI**  
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA  
944 711 282  
info@inmobiliarietxorierrri.com

Hortz-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areltza doktorea, 11. -1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

## BERRI LABURRAK



## Hirurogeigarren urteurrena ospatuko du aurten Hori Baik

Aurten 60 urte bete dira Hori Bai Larrabetzuko gaztetxea sortu zela. Haren kideek eta kide izandakoek agerraldia egin zuten urtarrilaren hasieran, urteurrena hasteko eta prestatzen dabilzan egitarauaren berri emateko. “60 urte lotu barik” lelopean, egitarau-sorta zabala antolatzen dabilta 2025erako. Azaldu moduan, ohiko ekintzak dira batzuk, baina beste batzuk beren-beregi prestatuko dituzte urteurrena ospatzeko, hala nola Hori Bai buruzko erakusketa, Hori Blaituz asteburua, Hori Bai Eguna eta Larrabetzuko Gazte Eguna.

Euskal Herriko gaztetzirik zaharrena da Hori Bai. “1965ean sortu zen Hori Bai, frankismoak estu hartutako garai latzetan. Egoera itolarri hartan, larrabetzuarrek zirrikitu bat zulatu, eta Hori Bai elkarte sortu zuten, euskara eta euskal kulturaren transmisiorako babesgune eta herritarrak antolatzeko ezinbesteko teila-tupe. Orduetik herriaren ezinbesteko zutabe bihurtu da Hori Bai, lurrikara guztien epizentro, ohitura zaharren transmisiorako txoko eta ohitura berrien sorleku”, esan zuten agerraldian.

Urteurrena dela-eta aukeratutako leloak adierazten duenez, 60 urte lotu ba-

rik eman dituzte Hori Baiko kideek. Antolatzen, pentsatzen, luze berba egiten, entzuten... “Kale ertzetik herriari tiraka, eta oraindik ere zutunik eta bizirik diraugu”. Ibilbide luze honetan, belaunaldiz belaunaldi, formaz aldatuz joan da gaztetxea. “Antolatzeko modu berriak ekarri dituzte garaian garaiko gazteek, eta belaunaldi guztiek utzi dute beren arrastoa gaztetxean. Moldaketek, baina, ez dute gure jardunaren muina aldatu: oraindik ere larrabetzuarrentzako eskola da Hori Bai, beste mundu bat posible dela sinesteko lekua, beste logika batzuen baitan gauzak egiteko aukera dagoela erakusten duen gaztetxea”.

Hala ere, aipatu zuten gaztetzearen ibilbidean dena ez dela polita eta samurra izan. “Ezin ditugu Elizaren eta EAJren eraiste- eta etxegabete-mehatxuak gogora ekarri gabe utzi, ezta herriak erakutsitako kemena, elkartasuna eta antolakuntza ere: irmo defendatu zuten gaztetxea, eta horri esker dago gaur egun bizirik Hori Bai”. Horregatik uste dute ospatzeko momentua ez ezik Hori Bai bezalako espazioen beharra aldarrikatzeko momentua ere badela. “Azken aldian gaztetzeari jasaten dabilzan jazarpenaren eta era-

soen aurrean, logika kapitalistatik kanpo antolatzen diren espazioen beharra aldarrikatu nahi dugu. Mundu grisago eta ilunago honetan argi-izpia direlako, gora gaztetxe eta gazte asanbladak!”.

Azaldu moduan, hainbat belaunalditako gazteak elkartzeko lekua da Hori Bai. “Kolektiboan pentsatzen ikasteko tokia, autogestioaren kulturaren hezteko espazioa, antolakuntza politikorako eskola, musika-taldeentzako plaza, herrirako aisialdi-eredu alternatiboa... Baina batez ere Larrabetzuko gazteontzako eta ez hain gazteentzako bigarren etxea da. Etorkizunera begiratzeko eta hura imajinatzeko beharrezko zaigun aterpea. Hirurogei urte denbora asko da, eta, era berean, hasiera baino ez”.

Hori Baiko kideek gogoz eta ilusioz hasi dute “aldarrikatzeko, ospatzeko eta birformulatzeko” izango den urtea. Gainera, adierazi dute gaur egungo asanblada berria eta indartsuagoa dela eta kezka, ikuspuntu eta parte hartzeko modu berriak dakartzala. Horren erakuslea da 2025erako antolatzen dabilzan egitaraua. Ekintzetan zein asanbladan parte hartzeko gonbitea egin diete gazteei zein ez hain gazteei.

**RADIO TAXI FEMADE** *Zure taxi, Teorierrikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

**ERRESERBAK:**

[www.taxisaerpuertobilbao.com](http://www.taxisaerpuertobilbao.com)

**DESCARGA APP-A**

**TAXI FEMADE**

**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefonoa: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)



## BERRI LABURRAK



### Herriko kirolariei esker ona adierazi diete Derion

Urtarrilaren 17an, Derioko Kirolaren IV. Gala egin zen Kultur Birikan. Bertako udalak antolatuta, ekitaldiak helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, herriko kirolariak, taldeak eta klubak egindako ahaleginagatik eta agertutako konpromisoagatik saritzea; eta bestetik, kirolaren papera herritarrak elkartzeko eta harro egoteko eragile moduan nabarmentzea. Festa-giroan, 21 kirolari eta hiru klub saritu ziren, eta aipamen berezi bat egin zen.

Saridunak hurrengo hauek izan ziren: Txorierrri Basketland SK-ko ume, kadete eta senior mailako emakumezkoen tal-

deak; Elaia García Madroñal (taekwondo); Miragarri Taldeko Haizea Ulecia da Silva eta Nadia Canales Lancharro; Markel Cidon Uria (triathlon); Maialen eta Aimar Salcedo Olivas (motokrosa); Doyan Taekwondo Klubeko Garazi de la Torre, Aitor de la Torre, Lucas Fernández, Leo Fernández, Maddi Acero, Fran Valle, Alaitz Antón, Naiara Arrola, Irene Vallo, Ainhize Achutegui, Izei Barcenilla, Pablo Jiménez, Violeta Pérez eta Ane Vallo; eta Imanol Arriortua Zorri-lla (txirrindularitza egokitua). Aipamen berezia Beste Bira Txorierrriko Derioko gurasoek jaso zuten.

### Kirol federaturako laguntzak Loiu

Lehiaketa bidezko deialdia egin du Loiu Udalak, 2023-2024 denboraldiko kirol federatua sustatzeko dirulaguntzak emateko. Helburua da Euskaditik kanpoko lehiaketa federatuetan parte hartzeko egin behar diren bidaiek eta dietek eragindako gastuak ordain-

tzen laguntzea. Eskabideak otsailaren 21era arte aurkeztu daitezke erregistro telematikoaren bidez edo udaletxean bertan, 08:30etik 13:30era. Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala udaletxean hartu daiteke, edo [www.loiu.eus](http://www.loiu.eus) webgunean.

### Loteria Zamudioko administrazioan kobratzen da

2024ko abenduaren 22ko loteria-zozketan dirua atzera tokatu da Aikor aldizkariaren zenbakian. Dirua Zamudioko loteria-administrazioan kobratu daiteke: Leizaola Lehendakaria Enparantza 7. Loteria-txartel bakoitzeko lau euro itzuliko dira, euro bat dohaina zen eta.



### Zizegorri, 10 urte perretxikotan

Hamar urte bete ditu Zizegorri Zamudioko mikologia elkarteak, eta urteurrena ospatzeko, hainbat jarduera egingo dituzte urtean zehar, hala nola ibilaldi mikologikoak, hitzaldiak eta asteburuko irteerak. Zamudion ez ezik Txorierrin ere izan duten harrera eskertu nahi dute Zizegorri elkarteko kideek. "Gure ikuspegi xumetik, saiatu gara mikologia Zamudiora ekartzen. Era berean, ahalegindu gara naturaren ezagutza eta harekiko errespetua zabaltzen. Bestalde, mikologiari buruzko kontsulta asko jaso ditugu, eta lagun asko egin". Urteurrenaren lehen hitzordua urtarrilaren 26an izan zuten, egun horretan Arabako VIII. Boilur Azokara joan ziren eta.

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
944 520 419

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontuak doan
- Especialitatea: umeak

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
[loterias.zamudio@gmail.com](mailto:loterias.zamudio@gmail.com)

## BERRI LABURRAK

### Beste Bira, Bizkaiko Master txapelkunordea; Igor García, M50 txapelkuna



Urtarrilaren 19an, Bizkaiko Master Txapelketa egin zen Muskizen, eta Beste Bira Txorierriko atletak bigarrenak izan ziren, “gainerako taldeen kalitateagatik eta azken orduko bajengatik podiumean egotea erraza ez izan arren. Gure atletak, hala ere, euren onena ematera irten ziren”, adierazi dute klubeko arduradunek. Era berean, Igor García Zarragak ere lasterketa ezin hobe egin zuen, eta txapela eraman zuen M50 kategorian.

Javier Allendek lehenengo hiru taldeen artean egoteko erantzukizuna hartu behar izan zuen, eta gain-azpi eginez

joan zen, Bizkaiko 13. sailkatua izan arte. Euren atzetik Eduardo Manzanos joan zen, zilarra lortzeko giltzarria izan zena. Bestalde, denboraldi honetako fitxaketa berriek ere emaitza onak izan zituzten Muskizen. Eskola-kiroleko korrikalarietako probak ere egon ziren, eta hortaz, “podiumera igotzea guztientzako jai izan zen”. Gainera, Laurent Williamsek 55 urtetik gorako proban hartu zuen parte, eta bigarrena izan zen bere kategorian. Masterrak Cártama herrira (Malaga) joango dira otsailaren 8an, Espainiako Txapelketara. Loira emaitza onak ekartzea espero dute.

### 3,16 milioi euroko aurrekontua izango du Larrabetzuk 2025erako

Larrabetzuko Udalak 3.166.198 euroko aurrekontua onartu du aurtengo ekitaldirako. Azaldutakoaren arabera, aurrekontuaren % 24 langileen gastuetara zuzenduko da; % 24, Mankomunitateak kudeatzen duen zerbitzuetara; eta % 8, tokiko elkarteentzako diru-laguntzetara. Bestalde, % 34 gastu finkoetara bideratuko da; % 9, inbertsioetara; eta % 1, mailegua ordaintzera. Aurrekontuaren ildo orokorren artean daude zaintza, euskara, hezkuntza, osasuna, memoria historikoa eta ingurumena.

Iaz, herrian egiten diren zaintza-lanei buruzko diagnostikoa egin zen, eta, jakinarazi moduan, 2025ean plan bat diseinatuko da hurrengo urteetan garatzeko. Horretara 10.000 euro bideratuko dira. Euskarari dagokionez, AROA proiektuaren baitan, 18.000 euro ipiniko dira datozen 10 urteetarako ekintza-plana osatzeko. Gainera, 2.000 euro zuzenduko dira euskara ikasten dabiltzanei laguntzera. Udalak 27.000 euroko di-

ru-partida izango du kultura-ekintzak antolatzeko, eta diru-kopuru horretatik 8.500 euro bideratuko dira Kulturbilgunearen ekintzetara. Gurasoen elkarterako diru-laguntza handituko da, 17.000 euro guztira, eta 6.500 euro zuzenduko dira Larrabetzuko Umeen Kontseilura.

Umeentzako aisialdi-eskaintza hobetzeko asmoa du udalak, eta hori dela eta, 60.000 eurora handitu du horretarako diru-partida. Era berean, 18.000 euro bideratuko ditu 2024an martxan ipinitako Akergunea gazteentzako txokora. Hirurogeita bost urtetik gorako pertsonen osasuna eta arreta hobetzeko, zahartze aktiboaren egitasmoarekin jarraituko dute (20.000 euro), eta 3.000 euroko laguntza emango diote Gure Etxeari. Era berean, 37.000 euroko diru-partida onartu da memoria historikoa berreskuratzeke, eta 12.000 eurokoa, kirol-ekintzetarako. Kirolbilgunea 2.500 euro bideratuko dira, eta 20.000 euro ipiniko dira kirol-instalazioak hobetzeko.

Beste alde batetik, 15.000 euroko diru-partida egongo da aukera-berdintasunari lotutako ekimenak garatzeko, eta 1.000 euroko diru-laguntza emango zaio Zutunik talde feministari. Azkenik, 5.000 euro zuzenduko dira energia berriztagarrietara; 10.000 euro, nekazaritza-sektorerara; eta 25.000 euro, baso-lurrak erostera. Bost mila euroko diru-laguntza ere egongo da, baserrietan egiten diren lanak ordaintzen laguntzeko.

Inbertsioei dagokienez, udalak esan du 30.000 euro jarriko direla eskolako sarrera handitzeko. Leih berriak ere ipiniko dira (20.000 euro), eta 15.000 euroko inbertsioa egingo da patioa eraldatzeko proiektuan. Haur-eskolako sarreran estalki berria ipiniko da (20.000 euro). Goikolexea eta Alaio auzoak mendi-bide baten bidez lotuko dira (130.000 euro), eta bidea egingo da Gaztelumendi eta Errebale kaleak lotzeko (80.000 euro).

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina  
Denominazio de Orjina

Goitoltza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

**Sondigarbi GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2  
635584941


EGUNERO  
8:00-22:00

**XUREGOTTI JATETXEA**

Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Laliu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteauregotti.com

## BERRI LABURRAK

**IRAKURLEEN EKARPENA**  
Bosko McGragh



### Fenomeno argitsuak Geldon

Urtarrilaren 6an Geldotik paseatzen nembilela, oso argitasun bitxia zegoen eta argazki hau egiteko aukera izan nuen. Argi-efektua da: egoera horretan, eguzki-izpiek ispiluarren horma eliptikoetan (plastikoetan) duten difrakzioa. Fisika optikoaren argazkia da, zaila lortzen, baina oso ondo adierazten ditu argiaren difrakzio- eta banaketa-fenomenoak energia-kuantuetan.

### Lezamako Pilota Goxo Txapelketan izena emateko epea irekita

Lezamako Pilota Klubak Pilota Goxo Txapelketa Herrikoia antolatu du hirugarren aldiz, eta izena ematea dagoeneko dago zabalik. Bi modu daude: mezua bidalita klubeko Facebook edo Instagram kontuetara edo elkarteko norbaiti esanez.

Txapelketan hiru maila egongo dira: emakumezkoak, gizonezkoak eta gizonezkoen bigarren maila. Parte-hartzaileak Lezamakoak izan behar dira, edo Lezaman bizi. Klubeko pilotarien gurasoek eta klubeko fitxa izan dutenek ere parte hartu ahalko dute txapelketan. Hala ere, federatuek edo eskola-mailan dabiltzanek ezin dute izena eman. Maila bakoitzean gehienez 15 bikote onartuko dira. Partidak barikuetan jokatuko dira.

Pilota Goxo Txapelketak ikusmin handia sortu ohi du herritarren artean, eta horren adierazlea da iaz frontoia leporaino bete zela finalak ikusteko. Orotara herriko 82 pilotarik hartu zuten parte: 12 urtetik 14 urtera bitarteko 40 pilotari, mutikoen kategorian; eta 42 pilotari, nagusien kategorian. Azken kategoria horietako pilotarien artean 14 emakumezko izan ziren. Finalak ekainean jokatu ziren, eta festa handia izan zen.



**INSUKALDEAK**  
insukaldeak.com

**BILBAO**  
**T. 94 402 82 54**

Lehendakari Aguirre 175-177.  
48015 Bilbao

**DERIO**  
**T. 94 656 85 69**

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.  
48160 Derio



**NAHI  
DUZUN  
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.  
Doako finantzaketa.

## TXORIERRIKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK



# erdu eta matrikulatu!



## Larrabetzuko eskola

**I**kasle bakoitzaren beharrezanetara egokitzen gara, umeak beti erdigunean ipintzen ditugu eta. Eskola inklusiboa da gurea, eta patio eta gune biziak sortzen ditugu etengabe. Era berean, hainbat egitasmotan gabilta murgilduta, hala nola

Eleaniztasuna Proiektua (euskara ardatza dela 3 hizkuntza ikastea), IkasLab, STEAM, Emozio-tailerrak eta Hezkidetzeta. Bestalde, ikasleen bazkaria gure sukaldean bertan prestatzen da, eta ortua duguenez, landatzen ditugun sasoiko pro-

duktuak zuzenean joaten dira sukaldera. Gainera, auzoari zein herriari zabaldua dagoen eskola dugu, eta gurasoek eta udalak parte-hartze aktiboa dute bertan. Otsailaren 3an, 15:00etan, informazio-bilera egingo dugu IkasLab gelan. Erdu!



944 287 860 · [zuzendaritza@larrabetzukoeskola.eus](mailto:zuzendaritza@larrabetzukoeskola.eus)

## Sondikako eskola

**I**kasleen hezkuntza-arrasta zein arrakasta pertsonala lortzeko, Gorondagane eskolan hurrengo helburu hauek ditugu: hezkuntza-kalitatea etengabe berritzea, hezkuntza-testuinguru berrietara moldatzea eta komunitateko kide guztiak helburu komunitaria motibatzea.

Haur Hezkuntzan, umeen ongizate fisikoa eta emozionala bermatu eta sustatzen dugu, eta garatutako antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriek ikasle guztien garapen integrala dute helburu. Lehen Hezkuntzan, bestalde, ikasleen garapen orekatua bilatzen dugu. Era

berean, ikasle guztien gizarte-inklusiola lortzea dugu ardatz, eta herritar kritiko, berdinzale, aktibo eta eraikitzaile moduan garatzen laguntzen diegu. Bestalde, ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune metodologiko eta digital berrietarantz goaz.



944 531 020 · [cepgorondaganehli@gorondaganeeskola.com](mailto:cepgorondaganehli@gorondaganeeskola.com)



## MATRIKULAZIO EPEA: Otsailaren 3tik 14ra



### Zamudioko eskola

Umearen garapen integrala eta orekatua lortzea helburu nagusia dugula, umearen beharrianetara egokitu-tako metodologia aktiboak bultzatzeko erronkan murgilduta gaude. Eraldaketa horren bidean, mugimendu autonomoan pausoak egiten hasi gara Haur Hezkuntzan, eta umeen segurtasun afe-

ktiboa, autonomia eta hainbat gaitasunen garapena ahalbideratzen dituzten barneko eta kanpoko guneak sortu ditugu. Lehen Hezkuntzan ere bide horretatik jarraituta, ikasketa kooperatiboak eta manipulazio- eta esperimantazio-jarduerak eskaintzen ditugu. Bestalde, gure hezkuntza-eskaintzaren zu-

tabeak dira aniztasuna, inklusioa, berdintasuna eta jasangarritasuna, beti ere euskara ardatz nagusia izanik. Gainera, proiektua aurrera eramateko, elkarlanean gabilta familiekin eta herriko eragileekin. Era berean, zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkiegu familiei, hala nola harrera goiztiarra eta eskolaz kanpoko ekintzak.



944 520 826 · [zuzendaritza@zamudiokoeskola.net](mailto:zuzendaritza@zamudiokoeskola.net)



### Derioko eskola

Harro gaude gure hezkuntza-inguruneaz, non ikasle bakoitza bere individualtasunagatik eta talentuagatik baloratzen den: komunitatea gara eta guztiek dute hazteko, ikasteko eta ekarpenak egiteko gunea. Ikaskuntza aktiboa eta pentsamendu kritikoa sustatzen dituzten metodologia berriak erabiltzeaz gain, tresna digitalak eta

teknika pedagogikoak baliatzen ditugu eta hainbat proiektutan ibiltzen gara, ikasleak etorkizuneko erronketarako modu dinamikoan eta motibatzaileen prestatzeko. Funtsezko zutabe ditugu bizikidetzeta eta hezkidetzeta, eta errespetuaren, enpatiaren eta lankidetzaren kultura sustatzen dugu, non ikasle bakoitzak ongizate kolektiboaren laguntzen baitio.

Bestalde, eskolako sukaldean bertan prestatzen da ikasleen bazkaria, eta, gurasoen elkarrekin antolatuta, goizeko harrera-zerbitzua eskaintzen da 07:30etik 09:00etara, eta askari-zerbitzua, 16:00etatik 17:00etara. Halaber, eskolaz kanpoko ekintza-sorta zabala izaten da eguerdian eta arratsaldean. Urtarrilaren 29an gure eskola ezagutzeko atea irekitzeko eguna izango da.



944 541 246 · [matrikula@deriokoeskola.com](mailto:matrikula@deriokoeskola.com)



## MATRIKULAZIO EPEA: Otsailaren 3tik 14ra



### Lezamako eskola

**U**meak beti erdigunean jarrita, eraldaketa-prozesuan gaude buru-belarrri. Horrela, hiru ekosistema atondu ditugu Haur Hezkuntzan –jolas sinbolikoa, ingelesa eta matematika–, eta euren interesetatik abiatuta, 3, 4 eta 5 urteko geletako ikasleek erabakitzen dute zein ekosistematako partaide izan nahi duten. Bestalde, eskola euskalduna da

gurea, D ereduakoa, eta euskara ez ezik euskal ohiturak eta jaiak helarazten dizkiegu ikasleei, hala nola Olentzero, Inauteriak eta Korrika. Horrezaz gainera, elkarlanean gabilta Zorritzetan euskara elkartarekin, antzinako festa berreskuratzeko: Gau Beltza; eta Txorierriko Mankomunitateak antolatzen dituen euskarari lotutako ekintzetan hartzen

dugu parte, esaterako, Ipuin Lehiaketan eta Euskara Astean.

Eskola txikia gara, eta hortaz, oso hurbil gaude familiengandik eta oso ondo eza gutzen ditugu ikasle bakoitzaren beharri-zanak. Kontziliazioa ere errazten diegu familiei, eta umeak goiz hartzeko zerbitzuaz gainera, eskolaz kanpoko hainbat ekintza izaten dira arratsaldean.



944 555 119 · [lezamakoeskola@lezamakoeskola.com](mailto:lezamakoeskola@lezamakoeskola.com)

### Txorierrri Institutua BHI



**E**uskara eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntza-proiektu berritzailea eta eleanitza da gurea. Gune eta instalazio berriei esker, ikasleei baliabiderik egokienak eskaintzen dizkiegu kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-proiektuarekin ekiteko. Hautazko eskaintza zabala eta maila bakoit-

tzean arloren bat gutxienez ingelesez lantzeko aukera ere badute ikasleek.

Bestalde, ikasle eta familiekiko gertutasunak ahalbidetzen digu ikasleen jarreraipen estua eta aniztasunari erantzun egokia ematea. Herrien arteko lotura, elkarbizitza eta girotze arrakastatsua sus-


tatzen da ikastetxean, ikasleen ongizatea eta garapen integrala erronka izanik.

Txorierrri BHI ezagutzera emateko asmoz, Txorierrriko eskoletan familientzako aurkezpen-saioak eskainiko ditugu urtarrilean. Eskoletako zuzendaritzak bidaliko dizue bilereki buruzko informazioa.



944 287 920 · [zuzendaria@txorierribhi.com](mailto:zuzendaria@txorierribhi.com)

## SORLEKUA



## "Nire mahaikidea"



Zure sormen-lana gurekin partekatu nahi baduzu, idatzi aikortxori@aikor.com helbide elektronikora.

“**M**argolan honek bikote-kidea eta biok irudikatzen gaitu, elkarrekin gozatu dugun janariarekin batera. Ideia margotzeko eta erretratuak egiteko dudak desiotik sortu da. Beti gozatu dut irudi eta konposizio ezberdinak margotzen eta sortzen, eta pinturaren bidez irudikatzen dut burutik pasatzen zaidan guztia. Prozesuan zer gustatzen zaidan ikasten nabil.

Aurpegiak irudikatzeko gustua garatu dut: plazera ematen dit nire buruari erretratuak ondo egin ditzakedala erakustea. Zaila da erretratu ona egitea, pertsonaren izaera ondo irudikatzea eta ikusleek nor den ezagutzea: erronka hori dut gustuko. Janaria margotzea ere gustatzen zait. Ez irudikapen zehatza egiteko, baizik eta pintzelkaden erraztasunez gozatzeko. Hori dela eta, askoz janari espresionistagoa egiten dut. Beste aldetik, margolan honetan konposizio kaotikoa eta asmatua ere egin nahi nuen”.

Izaro Sauto loiuztarra Arte Ederrak ikasten dabil Leioan, eta pintura-irakaslea ere bada. Zazpi urte zituela hasi zen pintura-eskolak jasotzen, eta harrezkerro ez du “inoiz pintzela askatu”. Eza-gunen erretratu egiten dabilela, haien begirada sentitzea gustatzen zaio. Hala ere, aipatu duenez, “autorretratu egitean, hainbeste aztertzen da norberaren aurpegia, ezen dena desitxuratzen den eta irudikapen horretan zu izateari uzten diozun”.



Izaro Sauto

Instagram: @izarosauto\_art

**ArtileArtean**

Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

**Torrealday**

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLEKULARITZA

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,  
KONPONKETAK...

MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547  
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

**GAZTEA ETA**

# “Datorrena datorrela, bidea gozatuko dugu”

**BERART GARTZIA GEZURAGA**  
Musikaria

Aramu taldeak entzuleen GAZ saria eraman zuen 2024ko Maketa Lehiaketan. Taldekideetako bat Berart da, 23 urteko zamudioztarra, txiki-txikitatik musikarekin oso harreman estua duena. Musikaz eta proiektuz aritu gara berarekin.



T ITXASO MARINA    ANER MENTXAKA

“**O**so pozik gaude”, esan digu Zamudioko gazteak. “Espero genuena baino askoz gehiago jaso dugu entzuleengandik, eta lagunen eta jendearen berotasuna sentitzea baino sentsazio hoberik ez dago”. Aramu taldea 2023an sortu zen Marurin, eta taldekideak hauek dira: Ager Garai (gitarra eta ahotsa), Gorka Argaluz (ahotsa), Berart Gartzia (baxua eta ahotsa), Isemene Pellejero (gitarra eta ahotsa) eta Mikel Muruaga (bateria).

Berartek azaldu digunez, rock taldeen abestiak jotzen zituzten hasieran, baina estilo propioa garatzeko gogoia piztu zitzaion, eta bera taldean sartu zela, iazko

apirilean, hasi ziren euren estilo bila. “Bide horretan, *Nora hegan egin* abestia hartu genuen erreferentziazat, Spotify plataforman ditugun artean gehien gustatzen zaiguna delako, eta indie-rock edo punk-rock estiloetara egin genuen salto. Hala ere, partaide bakoitzak gustuko dituen estiloek isla dute taldearen sorkuntzan, hala nola funkyak, gospelak eta pop-rockak”.

Sorkuntza-prozesuan bete-betean zudela animatu ziren Gaztea Maketa Lehiaketan parte hartzerako. “Pentsatu genuen aukera ona izan zitekeela gure musika jende gehiagori erakusteko eta esperientziak aberastuko gintuela kide

eta musikari moduan”. Hiru kanta aurkeztu zituzten: aipatutako *Nora hegan egin*, *Zaldi gainean* eta *Amaieraren hasiera*. “Finalerdira iritsi ginela jakin genuenean ikaratu ginen, eta entzuleek finalean egoteko aukeratu gintuztela jakin genuenean, harritu. Finalean egotea sinestezina izan zen, eta azkenean entzuleen sariarekin itzuli ginen etxera”. Gaztearen hitzetan, oso esperientzia gomendagarria izan da. “Gure musika eza-gutzerako emateak asko bete gaitu talde moduan, eta baliagarria izan da gure arteko harremana gehiago estutzeko. Gainera, entzule berriak lortu ditugu leku askotan, eta kontzertuak egiteko aukera



ere bai. Beste musika-talde batzuk eza-gutu ditugu, eta haiengandik ikastea oso aberasgarria izan da musikari bezala”.

Aramuk hiru abestik osatutako disko laburra du, eta Aste Santurako-edo disko berria kaleratzeko asmoa dute. “Lana erakusteko irrikan gaude. Bakoitzak gure ukitua gehitu dugu abestietan, eta hainbat estilo antzeman daitezke kanta bakoitzean, baina, era berean, guztiek dute Aramu taldearen ukitua. Hori lortu nahi genuen, hain zuzen, identitate bat sortzea, baina gustuko ditugun estiloak alde batera utzi gabe”. Diskoa kaleratuta, kontzertuak egiten hasiko dira. “Hori da gehien gustatzen zaiguna”. Zuzenekoek gozatzea da, beraz, epe laburrerako duten helburuetako bat. “Ez dakigu epe luzean zer etorriko den. Gaur egun gogoko duguna egiten gabilta, eta uste dugu hori dela jarraitu beharreko bidea. Datorrena datorrela, bidea gozatuko dugu”.

## “Identitate bat sortu nahi dugu, baina gustuko ditugun estiloak alde batera utzi gabe”

### BOST HARIKOA

Baxuaz gainera, zamudioztarrak hainbat musika-instrumentu jotzen ditu; pianoa eta biolontxelo, haien artean. Kontrabaxuarekin saiatzea gustatuko litzaiokeela aipatu digu, “haren edo baxu elektrikoaren soinuak gehiago betetzen nauelako”, eta erosen pianoa jotzen sentitzen dela. “Instrumenturik konpletoena da, nire ustez. Piano-jotzaileak melodia eta armonia aldi berean eta eroso jotze-

ko gaitasuna du, eta horrek pieza osoak interpretatzeko aukera ematen du, beste instrumentu baten beharrik gabe. Hortaz, erraza da orkestrako instrumentuen soinuak eta giroak imitatzea. Eta zer esanik ez, teklatu elektronikoa bada. Ondo pasatzen dut pianoa zein baxua jotzen, baina pianoak gehiago laguntzen dit sorkuntza-prozesuan”.

Berartek bost hariko baxua jotzen du Aramu taldean; Markus Miller bat, zehatz-mehatz. Alde batetik, bere musikari gogokoenek bost hariko baxua jotzeak arreta eman zion –adibidez, Sharay Reedek eta Mono Neonek–; eta bestetik, baxu horri esker, hainbat estilotara moldatu daiteke eta konposizioetan gustuko dituen lineak sortu ditzake. “Jazza, gopela eta funkya gustatzen zaizkit. Estilo horietan asko jolasten da altuerarekin, eta hari baxuago bat dudanez, nahi moduan jotzeket esandako musika-estiloak”.

## Musikaz blai

**M**usikarako zaletasuna familiaren-gandik datorkio. “Ama piano-jotzailea eta kantuko irakaslea da, eta familia musikariz beteta dago: amabitxi, akordeoilaria; amona, abeslaria; amaren izeko, piano-jotzailea; birraitite, trikitilaria... Beti abestu izan dugu etxean”. Hortaz, ez da harrizkoa umetxo zela musika-ibilbidea hasi izana. Lau urte zituenean amarekin jotzen hasi zen, eta hurrengo urtean Derioko musika-eskolan eman zuen izena. Kontserbatorioan ere ikasi du, eta pianoan espezializatu. Gradu profesionala amaituta, inprobisazioan, akonpainamenduan eta harmonizazioan trebatzen jarraitu du.

Lehen Hezkuntzako Gradua ere ikasi du, eta ingelesean, musikan eta pedago-

gia terapeutikoan espezializatu. Irakas-kuntzan dabil goizez, eta arratsaldeak ematen ditu obra berriak lantzen, Aramu taldearekin entseatzen, kirola egiten eta Zoli Zamudioko abesbatza zuzentzen. “Egunero nabil pianoan eta hori da nire lehenasuna, nahiz eta egunero baxua ere jotzen saiatzten naizen”.

Kontatu digunez, konposizioan ibiltzeko asmoa du, webgune bat sortu, eta bertan piano-jotzaile edo konpositore zerbitzua eskaini. “Aurten hasiko naiz hori bideratzen. Bestalde, Aramuko taldekideek diskoa, *merchandising*-a, kontzertuak eta hainbat proiektu eramango ditugu aurrera. Zoli abesbatzari dagokionez, azkenik, gustatuko litzaidake abeslari gehiago egotea, eta lerro

hauetatik gonbidatu nahi ditut zazpi urtetik 14 urtera bitarteko gaztetzako gurekin abestera”.

Horri lotuta, musikak eta abesteak dituzten onurak azpimarratu dizkigu. “Guztionez lagungarria izan daiteke maila fisikoan, emozionalean eta akademikoan. Izan ere, emozioak kudeatzeaz gainera, lantzen dira kontzentrazioa, entzumena, diziplina, memoria, koordinazioa eta sormena, batzuk aipatzearen. Beraz, denon esku dago, kirolarekin, dantzarekin, edo antzerkiarekin batera, hezkuntzan eta gure egunerokotasunean musikak duen pisua handitzea. Nik nire erara erakutsi nahi dut, dibertitzeaz gainera, Zoli abesbatzan ikasleek musikari etekina atera diezaioketela”.



# 2025eko aurrekontuak lanean jarraitzeko

**A**benduaren 16an, Osoko Bilkurak 2025eko ekitaldirako hiru aurrekontu onartu zituen: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearena, "Txorierriko Udal Euskaltegia" erakunde autonomoarena eta EGAZ Txorierrirena. Mankomunitatearen 2025. urterako aurrekontua 10.914.098,05 eurokoa da. Eta Txorierriko Udal Euskaltegiarena eta Behargintza Txorierrri, SLrena, 837.802,92 eta 1.035.005,84 eurokoa, hurrenez hurren. Hauek dira 2025ean bete nahi diren helburuak:

- Hondakinen bilketa, eta tratamenduko eta bide-garbitakako zerbitzuek izandako %7,22ko hazkundeari aurre egitea.
- Lehen mailako gizarte-laguntzaren zerbitzua hobetzea %21,17ko igoerarekin, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze eta arreta psikologikoko programak handitzeko.
- %24,07 areagotzea enpleguaren sustapena, zeharkako ikuspegi global batetik, eta bereziki gazteen presakuntza eta enplegua landuz.
- Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzea, aurrekontua %3,7 igoz, Euskaraldia antolatzeke 17.827 euroko partida gehituz; guztira 238.455,96 euro.
- Adikzioen eta osasuna sustatzeko plana garatzen jarraitzea.
- Langileen gastuen gehikuntzari aurre egitea, langileen ordainsarien gehikuntzaren aurreikuspenagatik eta plantillaren hazkundeagatik, % 2,50eko igoera eginez, 2024rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezartzen duen bezala.
- Bi plaza berri sortuko dira.

	2024	2025	IGOERA
<b>Mankomunitatea</b>	10.184.209,43€	<b>10.914.098,05€</b>	% 7,17
<b>Udal Euskaltegia</b>	808.280,98€	<b>837.802,92€</b>	% 3,65
<b>EGAZ Txorierrri</b>	915.845,51€	<b>1.035.005,84€</b>	% 13,01

## TXORIERRIKO BERBAK

### Sasoirik sasoi

**G**auza bakoitza egiteko sasoi jakin bat ei dago. Hori ondotox dakite baserri lanetan dihardutenek. Adin batetik gorakoei sarritan entzun diegu hankabikook ere halatsu jokatu behar-ko genukeela, gauza bakoitza egiteko aldi edo sasoi bat dugula bizitzan.

Batzuek, urteko muga uda osteko hila-betean jartzen duten arren, gehienontzat egutegiaren lehenengo orrialdeak seinatzen du garai berria. Asmoak, helburuak eta enparauak.

Negu hotzetik udaberri (*udebarri*) berdera pasatuko gara, eta konturatu orduko uda (*ude*) epela etorriko zaigu. Irailak udagoiena (*udegoiena*) ekarriko du, orbel eta guzti. Urtaro horri Sondikan, mendebal-

deko izenez gain, *urri(a)* ere esaten zaio.

Beharrezko ditugu epeak,aldiak eta tartekak, hasi eta amaitzen direnak. Askotariko garaiak daude: luzeak eta laburrak, hotzak eta beroak, gozoak eta gaziak...

"Siketa" edo "siketea" esaten zaio Txorierrin euririk gabeko aldi luzeari; *sikate(a)* sarrera jasotzen du Euskaltzaindiaren hiztegiak. Tarteka bada ere, erabili dezagun, Gipuzkoako *lehorte* eta Ipar Euskal Herriko (eta Nafarroa gehieneko) *idorte* berbertara jo barik.

Familia berekoak dira *euritea*, *berotea* eta *hotzetea*. Eta baita han eta hemen erre-pikatzen den zorigaiztoko *gosetea* ere.

Sasoiak letra xehez (minuskulaz) idatzi-ko ditugu: *gabonak*, *sanblasak*, *sanjoanak*;

egun zehatzak, berriz, letra larriz (maiuskulaz): *Urteberri (eguna)*, *Eguberri (eguna)*.

2024. urteaz berba egitean, zelan aipatuko dugu? Batuaz *iaz*, bizkaieraz *igaz*. Txorierrin, ahoz, "ies" edo "iges". Edo *pasa dan urtean*, *lehenago urtean*, *arteko urtean*...

Erdararen eraginez, pasatutako egunaz berba egitean gero eta zabalago dabil kalko hau: *beste egunean\**. Euskaraz, molde ugari ditugu hori adierazteko: *lehenago egunean*, *joan den egunean*, *aurreko egunean*...

2025. urteak 365 egun baino ez ditu izango; alegia, iazko bisurteak baino egun bat gutxiago. Aprobetxatu ditzagun, bada, egun guztiak, denborak, eten barik, aurre-ra jarraitzen du eta.



# Urtarrileko aldapan zehar, zure burua zaindu

**U**rtarrileko aldapak finantza pertsonalei eragiteaz gain, eragin nabarmena izan dezake gure osasun fisiko eta mentalean. Jaie-tako gehiegikerien ondoren, urte-hasiera tentsio ekonomikoekin, errutinetara itzultzearekin eta helburu berriak betetzeko presioarekin batera etortzen da askotan. Horrek guztiak estresa, antsietatea eta, oro har, osasunean eragin dezake modu negatiboan.

Hori dela eta, zenbait estrategia eskaintzen dizkizugu hilabete latz honetan osasuntsu mantentzeko, maila fisikoan zein emozionalean.

## 1. Elikadura zaindu: “gabonetako gehiegikeria” efektua saihestu.

Gabonetako jaietan, ohiko da mahaia-aren bueltako gehiegikerietan erortzea, ospakizunak eta oturuntzak direla eta. Urtarrilean, funtsezkoa da elikadurari arreta jartzea zure osasunean eragin negatiboak saihesteko.

## 2. Aktibo mantendu: estresari aurre egiteko eta energia hobetzeko gakoa da.

Ariketa funtsezkoa da ongizate fisikoari eta emozionalari eusteko, batez ere urtarrilean, estresa eta antsietatea areagotu daitezkeenean. Jarduera fisikoaren errutina bat mantentzeak zure aldartea hobetzen, estresa gutxitzen eta jaien ondoren bizitasuna berreskuratzen lagunduko dizu.

## 3. Estresa eta antsietatea maneiatu: ez utzi atsekabetzen.

Urte berri bat hasteak, urtarrileko al-



daparen presio ekonomikoarekin, lanera itzultzeak, edo asmo berriak betetzeko itxaropenak estres handia eragin dezake. Estres hori behar bezala maneiatzen ez bada, zure osasun mentalean eta fisikoan eragin dezake.

## 4. Antolatu zure ekonomia.

Urtarrileko aldapan kezka ekonomikoak, estresa areagotu eta antsietatea eragin dezake. Hala ere, zure finantzen ikuspegi antolatu batek lasaiago sentitzen eta erabaki osasungarriagoak hartzen lagun diezazuke.

## 5. Pentsamolde positiboari eustea: kontrola dezakezun ikuspegia

Mindseta (mentalitatea) funtsezko faktorea da urtarrileko aldapari aurre egiteko. Askotan, estresa eta antsietatea sortzen dira gauzak gure kontrolatik kanpo

daudela sentitzen dugunean.

Laburbilduz, urtarrileko aldapak ez du izan behar akidura fisiko eta mentaleko aldi bat. Ikuspegi orekatu, planifikatu eta errealistarekin, zure osasuna bere horretan mantendu dezakezu, hilabeteko erronka ekonomiko eta emozionaleko gorabehereri aurre egiteko. Gogoratu zure gorputza eta burua zaintzea funtsezkoa dela, ez bakarrik hilabete hau gainditzeko, baita urte osasuntsuagoa eta emankorragoa izateko ere.

Ohitura osasungarrietan zentratzen bazara, estresa murrizten baduzu, zure finantzak modu errealistan antolatzen badituzu, eta atsedean hartzeko eta erlaxatzeko denbora hartzen baduzu, pentsamolde lasaiago eta positiboago batekin aurre egin ahal izango diozu urtarrilari. Hau urte lasai eta oparo baten hasiera baino ez da eta!



## Elikadura eta menopausia tailerra

Goazen menopausiaz hitz egitera. Tailer honetan maila fisiologikoan ematen diren aldaketei buruz hitz egingo dugu, baita nutrizioaren inguruko zenbait gakori buruz ere. Tailerra **otsailaren 26an izango da Kultur Birikan, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman otsailaren 14a** baino lehen berdintasuna@txorierri.eus helbidean edo 668 654 649 telefonora idatziz edo deituz.



T ITXASO MARINA    ANER MENTXAKA

## ASTIKA HERRIA

Proiektu autogestionatua

# Bizirik jarraitu nahi duen auzoa

Bizilagunek esaten duten moduan, oasia da Astika Herria. Oasia, Erandion, porlanez, errepi-deez, industrialdez eta supermerkatu handi batez inguratuta. Txorierritik hurbil-hurbil dagoela, Astika auzoaren aztarna bakarra da gaur egun, eta hiru baserrik eta pabilioi batek osatzen dute, zeinetan autogestioa oinarria baita. Duela bost urtetik hona, utzarazte- eta eraiste-mehatxupearan bizi dira.

**H**ogei urteko ibilbidea du Astika Herria egitasmoak. “Etxebizitza bila zebiltzala, Astikako hasierako sustatzaileek hutsik topatu zuten etxeetako bat eta sartu ziren bizi izatera. Handik urte batzuetara, pabilioia –ibilgailuen tailerra omen zena– okupatu zen, hainbat kolektibori lekua emateko eta hainbat proiektu aurrera ateratzeko. Beste bi etxeak geroago okupatu ziren”.

Izan ere, Astika Herriak bi zutabe nagusi ditu. Alde batetik, etxebizitzarako

eskubidea. Gaur egun, bost pertsona bizi dira bertan, eta, esandakoaren arabera, 20 urtean 30 lagun inguruk topatu dute Astikan non bizi. Eta beste alde batetik, eginkizun soziala. “Guztionezko elkargunea izateaz gainera, kanpora begirako ekintzak egiten dira, hala nola kontzertuak, tailerrak, antzerki-emanaldiak eta hitzaldiak”. Horrela, urtean hitzordu garrantzitsu bi daude Astika Herrian: udako solstizioa eta auzoko jaiak, urriaren erdialdean. “Kolektiboak ere etortzen dira

lekua erabiltzera. Esaterako, azken aldian musika elektronikoa lantzen duen emakume-talde bat etorri zen tailer bat egitera. Tailerra amaituta, musika ipini zuten eta jaialdia egin zen”.

Astika Herritik hainbat belaunaldi pasatu diren arren, hasierako filosofiarri eutsi diote bi hamarkadan. “Hemen badago bizitza komunitarioa aurrera eramateko errealitatea, eta bizi garen kapitalismo basati honen kontra egiteko modua ere bada hemengo jendearen bizimodua, bai Astikan bizi direnena, bai



asanbladan parte hartzen dugunonena”. Adierazi moduan, okupazioa tresnatzat erabili dute etxebizitzaren arazoari konponbidea emateko. “Jabetza pribatuaren aurka gaude, eta non hemen baino hobeto? Astika are sinbolikoagoa da, ze kapitalismoz inguratuta gaude: fabrikak, industrialdeak, supermerkatu handia... Baina bertan jarraitzen dugu, etxe hauei bizitza ematen eta kapitalismotik at gauzak egiten eta gure autogestioa aurrera eramaten”.

Autogestioaren bidez lortu dute auzoa berreskuratzea eta etxeak konpondu dituzte. “Etxeetako bat guztiz jausita zegoen eta teilaturik ere ez zuen; zerotik eraiki genuen berriro. Azken batean, okupazioaren gakoetako bat da gauzak mantentzea eta zaintzea. Pabilioia abandonaturik utzi bultzatzen, adibidez, bada, ziur asko eraitsiko zen,

## “Hemen badago bizitza komunitarioa aurrera eramateko errealitatea, eta bizi garen kapitalismo basati honen kontra egiteko modua”

ze gauzei bizitzarik ematen ez badiezu, hil egiten dira. Guk bizitza eman diogu auzoari, eta horregatik mantendu da bizirik”. Ortuak ere badituzte Astika Herrian, eta horiek egitasmoko kideek zein inguruko herritarrek erabiltzen dituzte euren ekoizpen txikia izateko.

### ATSEGINGARRIA

Erabakiak asanbladaren bidez hartzen dituzte Astika Herrian. “Hamabi lagun gara asanbladan: hemen bizi direnak zein bizi ez garenok. Batzarretara hainbat gai eramaten dira, esate baterako, gunearen kudeaketa, egin beharreko konponketak, kultura-egitaraua eta horri lotutako kudeaketa, beste kolektibo batzuek deitutako ekitaldietan Astika moduan parte hartzea...”. Asanblada irekia da, eta nahi duenak parte hartzeko aukera du bertan, betiere oinarrizko balioak errespetatzen baditu. “Transfobiaren kontrako gunea da Astika, sexismoaren kontrakoa, lodifobiaren kontrakoa, homofobiaren kontrakoa...”.

Zalantzarik ez dute, halako egitasmo batean parte hartzea atsegingarria eta motibagarria dela esaten dutenean.

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisol 4. behea B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**DERIO - 946 451 781**

Txorieriko etorbidea, 6 Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Adierazi moduan, pabilioia okupatu zen momentua izan zen egitasmoaren ibilbidearen unerik giltzarrietako bat, “horrek Astika kanpora zabaldu zuelako eta proiektua publikoagoa egin zelako, jendeari hona hurbiltzeko aukera emanda”. Horrela, bada, pabilioia elkargune bihurtu zen herritar askorentzat, eta etxeak okupatzen zebiltzanek zein garai batean etxeetako batean alokairuan zeudenek eta elkar-gunean zebiltzanek hartu zuten Astika Herria kudeatzeko ardura. “Gainera, hau Kranba! okupazioaren eta autogestioaren aldeko Bilboko konpartsa- ren –Komantxe izandakoa– etxea izan da urteetan: bertan gorde dute txosna, asanbladak egiten zituzten, asteburu luzeak eman...”.

Beste momentu giltzarri bat izan zen egitasmoak lehen mehatxua jaso zuenean. “Txipa aldatu genuen: bertan hainbeste urtean egon ondoren, gu hemendik kaleratzeko eta hau guztia botatzeko arriskua agertzen da; erne jarri ginen”. Azken etxea okupatu izana ere une garrantzitsua izan zen, Astika Herritik alde egiteko asmorik ez zutela tinko adierazi zuten eta. “Labartain enpresak dena zuen erosit, eta etxe

---

## “Berton jarraitzen dugu, etxe hauei bizitza ematen eta kapitalismotik at gauzak egiten eta gure autogestioa aurrera eramaten”

---

horretan bizi zirenek alde egin zuten. Enpresak itxi zuen etxea, baina guk okupatu genuen”.

### ALERTA

Azaldu digutenez, 2019an jakin zuten Erandioko Udalak Astika auzoan beste proiektu bat garatzeko asmoa zuela. “Informazio publikoa da, eta irakurtzeko aukera izan genuen. Egia esan, ez dakigu zehatz-mehatz zein proiektu-mota den, baina hiru baserriei eta pabilioiari dagokie; behera bota nahi dituzte, ez dakigu zer eraikitzeko”. Aipatutakoaren arabera, Labartain enpresa pixkanaka-pixkanaka joan da lurra eta eraikinak erosiz, eta lurra berriz

kalifikatzea ere lortu zuen: landa-lur izatetik industria-lur izatera pasatu zen. “Eraiste-lizentzia 2020an eman zien udalak, hemen pertsona batzuk bizi direla eta Astika Herria dagoela jakinda; hala ere, bertan bizilagunik ez zegoela esaten zuten. Enpresa bateko langileak etorri ziren eta neurketak eta argazkiak egin zituzten. Alerta handiko momentua izan zen. Bestalde, saiakera asko egin behar izan genituen hementxo jendea errolatu ahal izateko: ez dakigu zergatik, baina saiatzen ginen bakoitzean beste traba bat ipintzen ziguten. Harik eta azkenean lortu genuen arte”. Astika Herritik irteteko agindua 2023an heldu zitzaion. “Urte horretako maiatzaren 25ean kanpoan egon behar genuela esan ziguten, baina erabaki genuen ez genuela alde egingo”.

Hainbat mekanismo ipini dituzte martxan, 20 urteko egitasmoak zutik jarraitu dezan, esaterako, kanpainak eta manifestazioak. “Bide judizialera ere jo dugu, eta abokatu baten laguntzarekin topatu ditugun bide guztiak erabili ditugu. Errekurtsoak aurkeztuz joan gara, eta auzia Auzitegi Gorenean dago gaur egun, azken instantzian. Era berean, jarraitu egin dugu Astikan ekintzak

antolatzen, gunea bizirik mantentzeko eta jendeak parte hartzeko, ze horrek indarra ematen dio egitasmoari”. Epaia noiz jakinaraziko den ez dakite, baina enpresaren eta udalaren alde egingo duen susmoa dute. “Badakigu handik hilabete batzuetara Astikatik irteteko agindua jasoko dugula. Ondo dakigu legeak zelan eginda dauden, eta ez daude inondik inora halako proiektu baten alde eginda”.

**HORTZETZ ETA HAGINEZ**

Nolanahi ere, argi dute egitasmoa hortzetze eta haginez defendatuko dutela. “Hainbeste urteren ostean eta zer lortu dugun kontuan izanda, ez gara hemendik joango. Astika Herriaren alde borrokatuko gara eta salatuko dugu hemendik bota nahi gaituztela, beste supermerkatu edo industrialde bat edo dena delakoa ipintzeko. Bai proiektuarengatik, bai etxebizitzengatik. Etxebizitzarena egundoko arazoa da gaur egun, eta ez da onargarria erakunde publiko batek pertsonen aurretik dirua ipintzea. Etxebizitzak defendatu behar

**“Astikaren alde borrokatuko gara, eta salatuko dugu hemendik bota nahi gaituztela, industrialde edo dena delakoa ipintzeko”**

diren momentuan gaude, baita Astika bezalako proiektuak ere. Argi dugu bertan egongo garela”.

Euren iritziz, ez da kasualitatea aspaldi honetan zabaldu den okupazioaren kontrako kriminalizazio-kanpaina. “Esan moduan, arazo larria da etxebizitzarena, baina etxebizitzarako eskubidea defendatzeko indarra ere badago, eta gaia mahai gainean ipini da. Hala ere, 2018an legea aldatu zen, okupazioaren kontra gogorrago egin ahal izateko. Orduan, udal baten laguntzarekin, eraikuntza-enpresa handi bat, buruan bakarrik dirua duena,

etorri daiteke eta auzokideak kalera bota ditzake. Auzokideak kalean geratzen dira, baserriak botatzen dira... Baina arazoa okupazioa da... Oso estrategia argia da: arreta okupazioan ipintzea, etxebizitzaren arazoan baino. Azkenean, zer arazo dakar okupazioak? Esparru juridikoan espekulazioak etxebizitzarako eskubideak baino leku handiagoa izatea nahi dute, eta horretarako, gutxinaka joaten dira legeak eginez eta epaiak kaleratuz. Dirudunek ez dute inongo oztopo legalik izan nahi, euren negozioak aurrera eramateko, nahiz eta jendearen oinarriko eskubide ginetik pasatu. Okupazioaren kontrako kriminalizazioa testuinguru horretan dago”.

Gogora ekarri dutenez, Astika Herria mehatxupean dago eta eskatu diote jendeari adi egoteko, edozein momentutan egitasmoa babesteko kanpaina berraktibatzeko beharrezana egon daiteke eta. “Eta, aldi berean, etor daitezene hona gauzak egitera eta Astikari bizitza ematera”. Izan ere, 20 urtean ilusioz aurrera atera duten egitasmoak bizirik jarraitzea nahi dute.

*Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.*



**TXORIERRIKO UDAL  
EVSKALTEGIA**



	<b>B1</b> Erabiltzaile independentea	<b>B2</b> Erabiltzaile aurreratua	<b>C1</b> Erabiltzaile gaitua	<b>C2</b> Erabiltzaile aditua
<b>Euskaltejetako ikasleen deialdia</b> B1 B2 C1 C2	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Ekainaren 25etik 28ra	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Ekainaren 25etik 28ra	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Uztailaren 2tik 5era	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Uztailaren 2tik 5era
<b>Deialdi irekia</b> B1 B2 C1 C2	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Ekainaren 25etik 28ra	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Ekainaren 25etik 28ra	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Uztailaren 2tik 5era	<b>Idazmena:</b> Maiatzaren 8tik 10era <b>Mintzamena:</b> Uztailaren 2tik 5era

Matrikulatzeko epea: **martxoaren 24tik 31ra**

Informazio gehiago: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus)



## SONRÍE SIN PIOJOS

# Agur zorrirei; egin irribarre!

Kezkak irribarre bihurtzen dituzte Sonríe sin piojos zentroan. Izan ere, tratamendu-sesio bakar batean gauza dira familiak gehien gogaitzen dituzten arazoetako bati konponbidea emateko: zorriak. Horretarako, tratamendu xurgatzailea erabiltzen dute, % 100eko naturala dena, osasunean eragin kaltegarririk ez duena eta erabat eraginkorra dena. Dagoeneko ez dago aitzakiarik irribarre ez egiteko.

## Zer dira zorriak?

Familia askorentzat buruhauste izateaz gainera, zorriak pertsonen buruan bizi diren intsektu txikiak dira. Zorri helduek sesamo-hazi bateko tamaina dute, eta arrautzak –bartzak– are txikiagoak dira. Gizakion odolaz elikatzen dira bizirauteko. Zorriak arrastaka mugitzen dira, eta hurbileko kontaktuaren bidez kutsatzen dira pertsona batetik bestera. Ohikoa da hiru urtetik 11 urtera bitarteko umeen eta beren familien artean, ume txikiak gehienetan buruak hurbil-hurbil dituztela jolasten dira eta. Hala ere, nerabeek ere izan ditzakete.

Arriskuak ez diren arren eta gaixotasunik zabaltzen ez badute ere, zorriak

oso desatseginak dira, azkura sortzen dutelako eta, iluntasunean aktiboagoak direnez, lo ondo ez egitea eragin dezaketelako. Gainera, azkura dela-eta buru-azala hatz egiteak zauriak eragin ditzake. Nolanahi ere, zorriek ez dute garbitasunarekin zerikusirik: esan moduan, odola xurgatzen dute jateko, eta berdin die buru-azala garbi edo zikin egoteak. Normalean, zorriak eta bartzak izaten dira belarri atzean, garondoan eta lepotik hurbil.

## Tratamendua

Egokiena da zorriak lehenbailehen tratatzea, ugaritu ez daitezen. Eskuz kendu daitezke, eta merkatuan hainbat pro-

duktu ere badaude, hala nola xanpuak, kremak eta lozioak. **Sonríe sin piojos** zentroan, bestalde, tratamendu naturalagoa eta atseginagoa eskaintzen digute: zorriak xurgatzea. Azaldu dutenez, esku-sistema eta sistema mekanikoa erabiltzen dute, kimikorik eta pestizidarik gabekoa eta kalterik egiten ez diena ez buru-azalari, ez larruazalari. Hortaz, pertsona guztientzako tratamendua da, haur txikientzat zein umeentzat, haurdun daudentzat eta larruazaleko arazoak dituztenentzat. “Zorriak xurgapen-sistema baten bidez kentzen ditugu, eta bartzak, lupa berezien bidez”. Sesio bakoitzak 60-90 minutu irauten du, eta sesio bakar batean kentzen dira zorri eta bartzak guztiak.





Lehenengo eta behin, pertsonak zorririk duen jakiteko, zorrotz aztertzen da burua. Pertsona infektatuta badago, ile-sorta txikiak egin, eta bartz-orrazia erabilia orraztuko dira. Ondoren, gailu profesional baten bidez xurgatuko da ile-sorta bakoitza, zorriak, ninfak eta bartzak kentzeko. “Horren ostean, ileak banan-banan aztertzen ditugu orraziak eta lupak lagunduta, tratamendua eraginkorra izan dela eta zorririk eta bartzik ez dagoela ziurtatzeko”. Gainera, jarraitu beharreko pautak azaltzen dira zorriak berriro izatea ekiditeko, eta bospasei egunera berriro aztertzen dute burua, baita ilea xurgatu ere, zorririk eta bartzik ez dagoela bermatzeko. “Tratamenduak 15 eguneko bermea du. Era berean, ordutegi zabala dugu, eta hitzordua egun berean edo hurrengoan hartu daiteke”. Fitokosmetikako produktuak ere topatu ditzakegu zentroan, familia osoaren ilea eta buru-azala zaintzeko.

## Aholkuak eta mitoak

Eskarne Astola da **Sonríe sin piojos** zentroaren buru. Aholku batzuk eman dizkigu zorriak ekiditeko. “Normalean, zo-

rriak pertsona batetik bestera kutsatzen dira, euren ilea zuzeneko kontaktuan egon delako. Hala ere, gomendagarria da orraziak, ilea lotzeko gomak, txanoak... ez partekatzea. Bartz-orrazia astean behin erabili behar dugu, ilea bustita eta deskorapilatuta dagoela, tiradizoak eta ilea apurtzea ekiditeko. Azkenik, hobea da ilea lotuta eramatea”. Bartz-orraziari dagokionez, zentroan erabiltzen dutena aholkatu digute. “Metalikoa izan behar du, hortz-luzera egokia eduki, eta hortzek mikroidaskatuak izan behar dute”.

Zorrien inguruan dauden mitoetako batzuk ere hautsi ditu. “Zorriak urteko edozein sasoitan izan daitezke. Baina egia da eskola-sasoian ohikoagoak direla, umeek elkarrekin denbora gehiago ematen dutelako. Zorriak 48 orduan bizi daitezke jateko barik, orrazietan, oihaletan... Denbora hori pasatuta, beste ostalari bat aurkitu ezean, hiltzen dira. Beste alde batetik, egunero uxagarri bat erabiltzeak ez du bermatzen umeek zorririk ez izatea. Zorriek bizirauteko eta egokitzeko gaitasun handia garatu dute, eta uxagarriekiko eta tratamenduekiko erresistente bihurtu dira. Egin dezakegun onena da burua maiztasunez aztertzea”.



### Sonríe sin piojos

Blas de Otero 28 behea  
Deustu - Bilbao

946 963 353  
652 727 524  
sonriesinpiojos.eus


info@sonriesinpiojos.eus  
@sonriesinpiojos



# “Liburua Deriori eskaintzea izan da nire ibilbide poetikoari buru emateko modua”

**FERNANDO ZAMORA**  
Poeta

Sei hamarkada baino gehiago idazten eman ostean eta 30 antologiatan baino gehiagotan parte hartuta, poeta derioztarrak bere obrarik hurbilena eta pertsonalena aurkeztu berri du: *Derio nire bihotzean*. Bakarrik idatzi duen hamargarren liburua da, eta, azaldu duenez, bere komunitateari eta inguruari eskainitako kantua da. Izan ere, miresten duen herriaren bilakaera biziki eta hurbiletik bizi izan du Zamorak.



T ITXASO MARINA    ANER MENTXAKA

**O**brarik inportanteena da zuretzat?

Duda barik. Liburu hau Deriori eskaintzea izan da nire ibilbide poetikoari buru emateko modua. Suerte handia izan dut, nire adinean semetzat hartu ninduen herriari eskainitako poemak bildu ahal izan ditudalako. Nolana ere, egia da oraindik argitaragabeko 15 liburu ditudala. Haien artean daude *Con las musas del amanecer*, non bikotekideari goizean agurtzeko idatzi nituen 300 poema laburretako batzuk jasotzen; eta *En el París de mis versos*, zeina

Frantziako hiriburura egindako bidaiaren bizi baten ostean idatzi nuen.

**Derio nire bihotzean** liburuan, herrian daramatzazun 60 urtean idatzituzko poemetakoz jaso dituzunak. Zenbat dira guztira?

Liburuan ia 100 poema daude, eta guztira 3.000 poema baino gehiago idatzi ditut; asko, Deriori eskainita. Poemak aukeratzeko, kalitatea eta interesa izan dituzten kontuan. Aukeraketa zaila izan da, baina adostua, eta xarma ere bazuten batzuk liburutik kanpo utzi behar izan ditut.

**Hiru ataletan batu dituzu.**

Lehena, Herria, Derioko elementuen edertasunari edo erabilgarritasunari egindako kantua da. Goraipamenak dira nagusi, baina kritikarako lekua ere badago. Bigarren atalean, Gertarak, herritarren errebindikazio- eta ospatze-momentuak jaso ditut; gehienek solidaritatea eta guztion ongizatea izan dituzte ardaztat. Eta azkenik, Gu atalean, miresten ditudan pertsonen gaineko poemak daude. Pertsona garrantzitsuak dira, gure herriaren zutabe izan direnak. Jakina, ez daude guztiak,

baina aukeratutakoek oso ondo islatzen dute komunitate moduan zer garen.

**Derioko zein leku, pertsona... dira inspirazio-iturri zuretzat?**

Bada, edozein egoeratan sortu daiteke sormenezko txinparta, eta batzuetan, zergatik ez dakizula, momentua islatzeko beharrezana sentitzen duzu.

**Azken liburu hau oparia dela adierazi duzu.**

Hainbat alderdirengatik da oparia: edizioaren kalitateagatik, miresten ditudan inguruari eta pertsoneri buruzko liburu argitaratzeko aukera izan dudalako, eta udalak emandako babesagatik. Liburuan nahasitako pertsonen eta herriarren erantzuna hain izan da positi-

**“Kontatzeko gauza positiboak daudenean eta herriak hobera egiten duela ikusita, errazagoa da bertsoak idaztea”**

boa, ezen liburu egin izana benetako oparia izan baita niretzat.

**Ibilbidea da Derioko gizartetik, paisaiatik eta komunitatetik. Alde handia dago duela 60 urte ezagutu zenuen herriaren eta gaur egungo**

**herriaren artean?**

Bai, desberdinak dira oso, baina gauza bera esango nuke Txorierriri buruz. Populazioa sei aldiz biderkatu da, eta horrek erabateko aldaketa ekarri du. Landa-inguru batetik industria-inguru batera pasatu da, baina, zorionez, modu ordenatuan izan da. Guztion ahaleginari esker, gure bailarak jarraitzen du bizitzeko leku egokia eta erosoa izaten.

**Lehen bezainbeste inspiratzen zaitu?**

Berdin dio, beti dagoelako luze eta zabal zeri buruz idatzi. Nire kasuan, poesiaren bidez. Gainera, kontatzeko gauza positiboak daudenean eta herriak hobera egiten duela ikusita, errazagoa da bertsoak idaztea.

## Cervantesen iritzikoa

**F**ernando Zamora da Fernando Lorenzo Gómez poeta derioztarraren izengoiti literarioa. 1940. urtean jaio zen La Hiniesta herrian, Zamoran, eta nerabea zela etorri zen Bizkaira. “Hamazortzi urterekin hasi nintzen poesia idazten, eta 25 urterekin, lanak argitaratzen. Bilboko irratiek berehala eman zuten nire lanaren berri, eta «irratiko poeta» esaten zidaten. Horrek bul-


tzada handia eman zion nire lanari”. Beste poeta batzuekin batera, Aralar Poesia eta Literatura Elkarte sortu zuen 1973an, eta Unamunoren Lagunen Elkartearen eta Bizkaiko Artisten Elkartearen kidea da; gainera, azken horren presidentea ere izan da. “Poeta handien ondoan egoteko aukera izan dut, eta asko ikasi dut haiengandik”.

Hamar liburu kaleratu ditu, eta hain-

bat poesia antologia kolektibotan parte hartu du. Literaturzale amorratua, poeta eta rapsoda ere bada. “Irakurle porrokatua naizenez, nire estiloa gartu dut eta badakit nire lekua zein den. Horri lotuta, bat nator Cervantesen hurrengo iritzi honekin: *“Yo, que siempre trabajo y me desvelo / por parecer que tengo de poeta / la gracia que no quiso darme el cielo”*”.


**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**SARRIKOLA OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basemko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

Centro Dental  
**Txorierrri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno. 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885  
[www.cdtxorierrri.es](http://www.cdtxorierrri.es)

**ORTODONCIA21**



FREEPIK

## BERBALAGUNA

747 447 579

berbalagun.txorierri@gmail.com

## Euskara zaletasun

Aurtengo berbalagun taldeak martxan dabiltza irailetik hona. Helburuak dira, besteak beste, euskara praktikatzeko guneak eskaintzea, parte-hartzaileak erabileran trabatzea, galdutako ohitura berreskuratzea eta harreman berriak euskaraz egitea. Ondorioz, egitasmoaren bidez, hiztun berriak gizarteratzen dira, euskararen erabileran eragiten da eta euskara zaletasun bilakatzen da.

**N**olanahi ere, azken urteetan formula berriak sustatu dira, parte-hartzaileen interesetara eta momentuko testuingurura egokitzeke. Formula berri horien artean dago mintzapraktika eta zaletasunak uztartzea. Horri lotuta, Euskal Herrian talde asko sortu dira, esaterako, eskalada egiteko, mendira joateko, kakorratza egiteko edo bizikletaz ibiltzeko; hau da, mintzapraktika eta partaideen zaletasunak batu dira, asteroko hitzorduari beste motibazio bat gehitzeko.

Adibideetako bat Txorierri bertan dugu: Berbagazte programa. Ane Lopez da arduraduna, eta azaldu duenez, gazteentzat espreski zerbait egiteko beharra ikusi zuten, berbalagun taldeetara ez zirelako hurbiltzen. Gazteen adina kontuan hartuta, bi talde osatu dira: 13 urtetik 15 urtera bitarteko gazteentzako taldea, eta

16 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzako taldea. Horiei hainbat ekintza egiteko proposatzen zaie ikasturtean zehar, hala nola sukaldaritza-tailerrak, surf-ikastaroak eta crossfit-ikastaroak. "Arrakasta handia dauka. Hirurogei gazte baino gehiago aktibatu dira egitasmoaren inguruan, eta oso pozik gaude". Beste adibide bat da Hondarribiko udal-liburutegiarekin batera martxan jarritako irakurketa- eta mintza-tailerra. Helburua da irakurzaletasuna eta hizkuntzaren praktika uztartzea, erraz irakurtzen diren liburuen bidez eta ulermena eta hiztegia landuz.

2024ko abenduan, Taupa Euskaltzaileen Mugimendua izatera pasatu zen Euskaltzaileen Topagunea. Tauparen erronka nagusia da euskararen erabilerara biderkatzeke baldintzak sortzea, "datorrena erabileraren aroa izan dadin". Euren iritziz, Mintzapraktika egitasmoa

gakoa da horretarako, "azken 30 urteetan euskaraz lasai eta eroso aritzeko guneak eta uneak sortu baititu, eta euskal hiztunak ahaldundu eta hizkuntzaren erabilerako pausoa egiten lagundu delako". Azaldu moduan, tokian bertan zein nazio mailan norbanakoak aktibatzeke gaitasuna du, eta bakoitzak ahal eta nahi duen heinean parte hartzeke formulak proposatzea du helburu. "Izan ere, euskarak guztiok behar gaitu, eta guztiok ipini dezakegu gure aletxoak hizkuntzaren biziberritze-prozesuan".

Urte berriarekin batera, egitasmoaren izena emateko epea zabaldu da berriro, eta aukera dago talde berriak sortzeke eta zaletasun berriak proposatzeke. Horretarako, mintzalaguna.taupamugimendua.eus webgunera jo behar da. Bestela, Txorierriko Berbalagun egitasmoa ere jo daiteke.

## PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

# Herri Ekimen Legegilea sinatzeko deia

Irailaren amaieran, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Herri Ekimen Legegilea aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko. Azken hori 1.134 eurokoa da gaur egun. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak onartu du herri-ekimena, eta pentsiodunen mugimenduak 10.000 sinadura batu behar ditu, hura Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozkatu dezaten.



**A**na Mezo Basaras larrabetzuarra da mugimenduko kidea. Azaldu duenez, helburua da “gure bizitzako azken fase honetan bizitza duina izateko aukerak eta baliabideak izatea”. Mugimenduak zazpi urtean aldarrikatu du gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea, baina, Mezoren esanetan, bizitza asko garestitu da eta diru-kopuru hori ez da nahikoa gaur egun. “Diru-kopuruz berba egiten dugunean, beti oinarritzen gara Europako Gutun Sozialean eta bertan batutako irizpideetan. Gure ustez, beste salto bat egin behar da kuantitatiboki eta kualitatiboki, eta horregatik proposatzen dugu gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, % 100ean”. Aderazi moduan, erreferentziatzat Estatuko lanbide arteko gutxieneko soldata hartu dute, “gaur egun indarrean dagoena delako”. Hala ere, herri-ekimenean jaso dute lanbide arteko gutxieneko soldata handituz gero gutxieneko pentsioa horrekin parekatuko dela. “Are gehiago, inoiz EAEn lanbide arteko gutxieneko soldata propioa onartzen bada, harekin parekatzea jaso dugu”. Era berean, pentsioaren igoera ofizioz egitea eskatu dute. “Hau da, inongo izapiderik egin behar ez izatea.

Azken batean, erakundeek badituzte gure datu guztiak, eta izapideak askotan korapilatsuak dira nagusientzat”.

Herri Ekimen Legegilea lege bihurtzen bada, neurriak 100.000 lagunengan izango du eragina. Horien % 70 emakumezkoak dira. “Etxean ibili dira lanean, zaintza-lanetan, lan prekarioetan... Portzentaje horretako emakume gehienek 850 euroko baino gutxiagoko pentsioa dute”. Bestalde, Mezak adierazi du neurriak kontuan hartuko dituela pertsona indibidualaren diru-sarrerak, eta ez bizikidetzaren unitatearenak, zenbait laguntzen kasuan gertatzen den moduan.

### BADAGO ESKUMENA

Egin beharreko tramiteak eginda, pentsiodunen mugimendua sinadurak biltzen hasi da. Batetik, eskutitzak prestatu dituzte udaletako alderdi politikoei eta idazkariari emateko. Eskutitzetan azaltzen diete herri-ekimenaren helburua, eta eskatzen diete egitasmoarekin bat egiteko eta sinadura-bilketa errazteko baliabideak ipintzeko. Bestetik, udalerrietako ekintza eta hitzordu esanguratsuak baliatuko dituzte sinadurak batzeko. “Hamazortzi urtetik gorako edozein pertsonak sinatu dezake. Atzerritar Nortasun Zenbakia aurkeztuta,

kanpotik etorritakoek ere sinatu dezakete, nahiz eta Espainiako nazionalitatea ez izan”. Apirilaren 24ra arteko epea dute sinadurak batzeko, baina Gabonak tartean, prozesua apur bat atzeratu da eta hilabete bateko luzapena eskatu dute. “Gure asmoa da 10.000 sinadura baino gehiago batzea. Nolanahi ere, helburua lehenago betetzen badugu, baliteke sinadurak ere lehenago aurkeztea”.

Sinadurak aurkeztu ostean, Eusko Legebiltzarreko alderdiek komisioetan aztertuko dute herri-ekimena, eta eztabaida egingo da. “Gutariko batek osoko bileran parte hartzeko aukera izango du gure herri-ekimena defendatzeko. Gero erabakiko da lege bihurtzen den”. Pentsiodunak baimorrak dira. Aipatu bezala, oso ondo oinarritutako testua osatu dute, eta badakite proposamena aurrera ateratzeko eskumena dagoela. Gainera, Mezak gogora ekarri duen moduan, neurria ez da bakarrik gaur egungo pentsiodunentzat izango; atzetik datozenentzat ere bada. Azkenik, aurreratu du herri-ekimena babesteko manifestua egin dutela eta hori 250 pertsona ezagunek sinatu dutela. Otsailaren 8an, 18:00etan, ekitaldia egingo da Bilboko Kafe Antzokian, jendaurrean aurkeztuko.



JOANES CAMARA Emaús Gizarte Fundazioa

EMAUS

## Jostailuak batzeko kanpaina solidarioan parte hartu dugu berriro

**U**rtero moduan, eta Gabonei begira, jostailuak batzeko eta banatzeko kanpaina solidarioa antolatu dugu hurrengo hauek: Emaús Gizarte Fundazioaren Derioko PAI Bitartean eguneko zentroak, Derioko gazte batzuek eta APNABI Autismo Bizkaia elkarteak. Bi astez, Derioko eta inguruko herritarrek ekarritako jostailuak bildu ditugu Kultur Birikan, eta ondoren beharri-zana duten pertsonen eskura ipini ditugu. Gainera, batzen den jostailu-kopurua banatzen dena baino handiagoa dela kontuan hartuta, ohi bezala, sobera egon diren jostailuak Saharan, Togon, Bolivian eta Ghanan lan egiten duten elkartei eman dizkiegu, herrialde horietan bana-

tu zitzaten. Horrezaz gainera, Valentziara ere bidali dira jostailuak.

Ekimen honi esker, egitasmo solidarioa antolatzen da udalerrian, eta, era berean, etxean erabiltzen ez diren jostailuei bigarren bizitza edo erabilera ematen zaie, birziklatzea eta jasangarritasuna bultzatuz. Hori dela eta, laguntzeko gogoia piztu da Txorierrri Institutuan, eta Agenda 2030eko egitasmoekin bat eginda, hango ikasleek ere jostailuak batzeko kanpaina antolatu dute. Ikasleak sentikor bihurtzeko eta haiekin lan egiteko, PAI Bitartean zerbitzuko arduradunak birritan izan gara institutuan, eta egitasmoaren nondik norakoak azaldu dizkiegu. Lehen hitzaldia Batxilergoko ikasleentzat izan zen, eta animatu genituen

jostailuak biltzeko eta banatzeko txandetan parte hartzera. Bigarren hitzaldian, bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako ikasleek hartu zuten parte, zeintzuk institutuko jostailu-bilketan protagonista nagusiak izan baitziren.

Horrela, ekimen biak batuz, oihartzun handiagoa lortu da, eta oso jostailu-kopuru handia batu dugu. Jostailuak beharri-zana duten pertsonen artean banatu dira, baita tanta hotzak kaltetu dituen Valentziako pertsonen artean ere. PAI Bitartean zerbitzuko arduradunek oso positibotzat jotzen ditugu institutuko ikasleek erakutsitako interesa eta egin-dako ekarpena, eta espero dugu kolaborazioa hurrengo urteetan errepikatzea.

LEIRE BEGOÑA  
ULE-APAINDEGIA  
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32  
Jarrai ienaguz Facebook-en

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku  
Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajak  
clínica dental  
ZAINDUZ  
hartz klinika  
Txorierrri etorbidea, 9 - Lajea | Anteaia erakina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 857 79 54 45  
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

Ford Goiri'78 s.l.  
Zerbitzu ofiziala  
Txorierrri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31



**XABIER DIAZ**  
@xa2\_baraka@mastodon.eus

TEKNOLOGIA

## DNA *book-etik* gertuago?

**A**simov Press editorialak DNAn idatzitako lehenengo liburu komertziala merkaturatu du<sup>1</sup>. Liburu horretan, zientzia fikziozko berderatzi saiakera eta hiru lan batu ditu, formatu tradizionalen zein DNAn kodetuta.

DNAk informazioa gordetzen du. Izan ere, organismo bizi guztien funtzionamenduaren eta garapenaren informazio genetikoak du; eta ez hori bakarrik: bere transmisioaren erantzulea ere bada. Kontua da ea gaitasun horiek guk nahi dugun informazioa gordetzeko erabili daitezkeen.

Edozelan ere, aspaldiko ideia da. 1959an, Richard P. Feynman fisikariak emandako "There's Plenty of Room at the Bottom: An Invitation to Enter a New Field of Physics" hitzaldi ospetsuan lehenengoz aipatu zuen mikro-mundua -bio-mundua barne- kopia diren objektu artifizialak sortzea euren gaitasunak aprobetxatzeko. 1964an, berriz, Mikhail Samoiloovitx Neiman fisikari sobietarrak 3 artikulu argitaratu zituen elektronikako mikrominiaturizazioari

buruz, zeintzuetan DNA eta RNA molekula sintetizatuak erabiliz informazioa erregistratu, biltegitatu eta berreskuratzeko aukerari buruz jardun zuen.

Informazioa gordetzeaz gain, DNAk oso leku gutxi hartzen du, egungo SSD konpaktuenak baino 1.000 aldiz gutxiago, eta hori erakusteko, ikerlariak DNAn kodetu dituzte, besteak beste, George Churchen *Regenesis* liburua<sup>2</sup>, Shakespeareren 154 soneto<sup>3</sup> eta *Biohackers* Netflix telesailaren kapitulu bat<sup>4</sup>.

Kodeketa egiteko, "0"ak eta "1"ak erabili beharrean, DNAREN baseak erabili dira: adenina (A), timina (T), zitosina (C) eta guanina (G). Guztira milioi erdi inguru DNA molekula beharrezkoak izan dira liburuaren 240 orrialdeak kodetzeko; digitalean eginez gero, 470 Kb izango lirateke. Catalog<sup>5</sup> enpresak garatutako metodoei esker, nahiko garestia den kodeketa (zenbait milaka dolar) behin egiten da eta nahi adina erreplika egin daiteke biologia molekularren tresnak erabiltuta, guztizko kostua merkatuz.

Ondoren, molekulak laser-zigiluzko eta altzairu herdoilgaitzezko kapsuletan

bildu dira, eta jada 1.000 kopia dituzue Asimov Pressen gunean, 60 dolarren truke, inprimatutako "ohiko" liburua barne. Irakurtzeko, berriz, DNA sekuentziadore bat behar da, eta gehienok etxean horrelakorik ez daukagula -neuk ez, behintzat-, Plasmidsaurus<sup>6</sup> enpresak eskaintzen du zerbitzua.

Oraingoz mugak ere baditu. Esan bezala, DNAn gordetako informazioa eskuratu, idatzi edo aldatzeko behar diren azpiegiturak ez daude edonoren eskura, eta gainera, denbora behar duten prozesuak dira. Beraz, ez da askotan atzitzen diren datuak gordetzeko bitartekorik egokiena. Artxiboko datu kopuru handiak gordetzeko, ordea, modu aproposa da, zeren beste euskarri batzuen aldean, gordeta dagoen bitartean ez baitu energetikoki kontsumitzen.

<sup>1</sup>labur.eus/dnabook1

<sup>2</sup>labur.eus/dnabook2

<sup>3</sup>labur.eus/dnabook3

<sup>4</sup>labur.eus/dnabook4

<sup>5</sup>labur.eus/dnabook5

<sup>6</sup>labur.eus/dnabook6



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO



**IZ**  
ILE APAINDEGIA  
946036913  
Txantxangorri 42  
ZAMUDIO  
iz.apaindegia@gmail.com



LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**  
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI  
Gorbea kalea, 5  
48170 ZAMUDIO  
Tlf. / Faxa:  
94 452 29 10



1 Bunkerra



5 Bunkerra

T O IÑAKI OLABARRIETA - JOSE ANGEL MENTXAKA

## MENDITIK PATXADAZ

# P lerroko bunkerrak Nafarroan (eta II)

Aurreko zenbakian azaldu genuen Pirinioetako P lerroa zer den edo zen: Francoren errejime-nak mendilerroan zehar egindako milaka bunker. Milaka daude, eta jolas ederra izan daiteke aurkitzen saiatzea, jakina, aurretik "P lerroko mapa" bilatzaile batean aurkitu eta bunkerren geolokalizazioa lortuz gero. Aurrekoan Ibañeta ingurukoak bisitatu genituen. Baztanen Otson-do portu ingurukoak, Eugitik gora Urkiaga portu ingurukoak... ere nabarmentzekoak dira, baita oraingoan proposatzen duguna ere: Auritz-Burguetetik Sorogainerako ibilbidea.

**A**uritz herrian hasi gara oinez eta Donejakue bidea utzita. Mendebalderantz egin, eta segituan hartu dugu iparralderantz doan bidea. Kilometro pare batera "Mendixuri" jar-tzen duen letreroa topatu dugu. Horri jarraitu diogu eta ezkerretara egin dugu. Baina, patxadaz eta begiak zabalik joanez gero, ehunen bat metro lehenago, bide ondoan, bunker eder bat (1) aurkitu dezakegu eskuinaldean. Arraroa egin zaigu hemen egotea, ez duelako alturarik kontrolatzen eta normalean halako metra-ladore-habiak altueran daude kokatuta. Orain bidea baso eder batetik doa. Basoa desagertu egin da gero, baina bideari jarraituta bunker pare bat aurkitu ditugu (2) eta (3) bide ondoan, (4) metro batzuk beherago. Bidea lepo batean amaitu da, ehiza postu baten ondoan.

Aurrez aurre dugu Mendiandi, eta

atzeko lepora pasatu behar da. Bi aukera daude: tontorretik jarraitu ala ezkerretik, abereek egindako bidezidorretik joan. Nolanahi ere, ez da eskuinaldetik joan behar, oso zaila da eta. Lepora helduta GR11ko seinale zuri-gorriak agertu dira, eta horiei jarraituta Sorogaineko aterpe-txera ailegatu gara era errazean. Bidetik beste bunker bat aurkitu dugu (5), eta gehiago ere badaude. Ia hamaika kilo-metroko ibilbidea izan da, baina ez zir-kularra; beraz, Auritzera itzultzeko plana buruan eduki behar da aurretik. Gainera, kontuan hartu behar dugu lainoa izanez gero hobe dela bide hauetatik ez saiatzea, galtzea erraza da eta.

Bunkerrez eta mendi ederrez gain, badago zer ikusi bazter hauetan. Sorogain inguruan hainbat monumentu megali-tiko aurkitu daitezke, ederto kontserba-tzen den cromlech bat barne. Paraje haue-

tatik erromatar galtzada bat igarotzen zen, Astorgatik Bordelera zihoana hain zuzen. Aurizberri / Espinaleko kontze-juaren etxean galtzada horretakoak ziren hiru miliario daude erakusgai. Era berean, merezi du hilerri ondoan dagoen estelen bilduma bisitatzeko. Amaitzeko, Auritz eta Aurizberri artean Zaldua izeneko parajea dago. Aranzadi elkarte aspalditik dabil bertan lanean, Zalduako aztarnategian hain zuzen. Aipatutako galtzada bertatik pasatzen zen, eta erromatar garaiko herri baskoi bat azaleratzen dabilta. Badirudi herri horren inguruan atsedean hartzeko ostatuak eraiki zituztela, terma eta guzti, eta handituz joan zen hiri bihurtu arte. Erromatar historialariek aipatzen zuten Iturissa hiria izan daiteke, baina oraindik ez dago froga nahikorik hori baieztatze-ko. Beraz, badago nondik ibili eta zer bi-sitatu paraje eder hauetan.





6 Estelak



7 Miliarioak




8 Zalduako aztarnak

## Ibilbidea

Distantzia: 10,7 km

Desnibel positiboa: 331 m

Eskuratu  
hemen  
ibilbidearen  
track-a



L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857

**OAKLAND**  
ENGLISH

**TABERNA GAZTEDEI**

@gazteditaberna\_izama  
944 554 422 · Aretxalde 141 · LEZAMA

**sarraila-denda Txorierri**

ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNAN

946 038 663  
625 100 800  
info@cerajeriatxorierri.com  
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate  
Urkiola, 4 lorja  
48160 Derio



WIKIMEDIA / MICHELST

@TXIRIBITA\_MUNDI

## HERBARIOA

# Asentsioa

*Artemisa absinthium*. Landare bizikor hau neguan desagertzen da, eta udaberrian berriro sortzen da. Leku harritsu eta sikuetan hazten dela, landare osoa da oso usaintsua eta oso zapore mingotsa du.

**P**ropietate tonikoak eta aromati-koak ditu: digestioari laguntzen dio, eta emenagogoa, tonikoa, gosegarria eta bermifugoa da. Hostoak eta loreak loraldiaren hasieran, udaren hasieran, batzen dira, eta sortetan sikatu behar dira leku siku eta epel batean. Ondo gordetzen bada, usaina mantentzen du.

## PROPIETATE SENDAGARRIAK

Bere propietateen artean aipatu daiteke digestioari laguntzen diola eta tonikoa eta gosegarria dela. Era berean, emenagogoa eta bermifugoa da. Infusioak oso zapore gogorra duenez, ohikoa da beste prestakin batzuk egitea, hala nola tinturak eta ardo sendagarriak, jateko gogoa pizteko eta urdaileko, hasteetako eta behazuneko mina arintzeko. Hormonak erregulatzen dituzten bi flabonoideri esker, medikuntza tradizionalan erabiltzen da hilekoa etorrarazteko edo erregulatzeko. Tonikoa da eta propietate bizkorgarriak ditu.

Aurreko lerroetan aipatu dugunez,

landare mingotsa da asentsioa, digestioari laguntzen diona, eta horregatik, gehienbat ardo sendagarriak egin ohi dira bere ahalmenaz baliatzeko.

**Asentsio-ardoa:** 30 g hosto eta lore, litro bat ardo zuri, 50 ml pattar edo vodka eta 100-200 g azukre edo ezti. Beti landare sikua erabili behar dugu, pres-takina ondo mantentzea nahi badugu. Poto hermetiko batean beratzen ipiniko dugu asentsioa ardoarekin eta vodka-rekin batera. Astebetetz izango dugu beratzen eta egunero eragingo dugu. Astebete pasatuta, iragaziko dugu eta azukrea gehituko diogu; ondo nahasiko dugu. Botilan sartuko dugu, etiketa ipiniko diogu eta leku fresko eta siku batean ipiniko dugu, argitasunetik babestuta. Gomendagarria da bizpahiru hilabete pasatu ondoren edatea, zapore biziagoa izango du eta. Otorduak baino lehen edan daiteke edalontzi bat asentsio-ardoa, jateko gogoa pizteko eta digestioari laguntzeko. Otordu oparoen

ostean ere edan daiteke. Nolanahi ere, neurritz hartu behar da beti.

## Ortuan

Asentsioak propietateak ditu izurriak eta parasitoak uxatzeko, eta propietate intsektizidak ere baditu; propietate horiek XII. mendetik dira ezagunak. Tradizionalki sitsak, arkakusoak... uxatzeko erabiltzen zen etxe, korta eta oilategietan. Ortuan ere erabili daiteke. Horretarako, asentsio-mazeratua prestatu dezakegu. Euri-ur 10 litro bakoitzeko kilo bat landare fresko (ondo txikituta) erabiliko dugu. Hamar egunean izango dugu beratzen, eta egunean behin eragin. Intsektizida moduan erabiltzeko, % 10era diluitu behar dugu, eta herdoilaren aurkako fungizida moduan, diluitu barik.

## Bitxikeriak

Asentsioa *wermut* esaten da alemanez, eta asentsioa hain zuzen da bermuta prestatzeko erabiltzen diren landaree-

tako bat. Katalunian, bestalde, *ratafia* egiten da, eta jatorrizko errezetan 17 landare aromatiko daude, eta haien artean, asentsioa.

Absenta, “Maitagarri berdea” moduan ere ezaguna, anis-zapore arina duen edari alkoholikoa da, eta ukitu mingotsa du. Mingostasun hori bere elaborazioan erabiltzen diren belarrak direla-eta du, eta *artemisa absinthium* nagusi da belar horien artean. Edari ezaguna izan zen Pariseko XIX. mende amaierako artisten eta idazleen artean, eta edan zuten 1915ean debekatu zen arte. Edariaren konposizio nagusia da asentsioa, mihiluaren loreak eta anisa, eta konposizio horri “hirutasun santua” deitu zaio modu barregarrian. Gustuen arabera, beste landare batzuetako kantitate txikiagoak ere erabili dira, adibidez, isipu-belarra, garraiska, aingeru-belarraren sustraia, erregaliza edo intxaur muskatua.

#### KONTRAINDIKAZIOAK

Luzaro edaten bada, toxikoa izan daiteke. Haurdun daudenek ezin dute edan.

## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zer-bait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA / FRANZ EUGEN KÖHLER

**TALDEA** **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

### ZURE NEURRIRA



BABESPEKO  
APARTAMENTUAK

EGONALDIK  
EGOITZEAN

egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049  
[www.gurena.com](http://www.gurena.com)

## SUKALDARITZA

# Detox irabiakia



PEXELS / ALISHA MISHRA

### Osagaiak (lau lagunentzat):

Pepino bat  
40 g espinaka  
Platano bat  
Madari berde bat  
Limoi bat  
10 g jengibre  
2,5 dl ur hotz

### Prestatzeko era:

Platanoa zuritu, eta zatituko dugu. Jengibreare ere zurituko dugu eta birrinduko dugu. Pepinoa eta madaria garbitu, eta zatituko ditugu, zuritu gabe. Bestalde, limoiari ura aterako diogu eta espinakak txikituko ditugu. Irabiagailuko edalon-

tzian ipiniko ditugu fruta eta barazkiak. Limoi-ura gehitu, eta irabiatuko dugu. Ondoren, ur hotza botako dugu pixkanaka-pixkanaka, irabiatzeri utzi barik eta harik eta gustatzen zaigun testura lortzen dugun arte. Berehala edango dugu.

# Barazki-pastela



FREEPIK/CHANDLERVID85

### Osagaiak (lau lagunentzat):

Bost arrautza  
1/2 kipula  
250 ml esnegain  
Piper gorri bat  
2 azenario

150 g ilar  
150 g leka  
Gatza  
Piperbeltza  
Olio


### Prestatzeko era:

Ilarrak eta lekak (txikituta) egosiko ditugu 10 minutuan. Uretatik atera, eta jalkitzen utziko ditugu. Azenarioa, kipula eta piper gorria txikituko ditugu. Lehenengo eta behin, azenarioa egingo dugu su motelean bost minutu inguru. Gatza bota, eta koilara batek lagunduta eragingo dugu. Ondoren, kipula eta piper gorria gehituko ditugu. Piperbeltza eta gatza botako ditugu, eta 10 minutu gehiago izango dugu sutan. Noizean behin eragingo dugu.

Beste alde batetik, arrautzak katilu batean ipiniko ditugu. Gatza eta piperbeltza bota, eta irabiatuko ditugu. Esnegaina gehituko dugu, eta arrautzekin nahasi. Barazkiak gehituko ditugu, eta osagai guztiak nahasiko ditugu. Nahasia labeko molde batera botako dugu, eta labean (aurretik berotuta) 45 minutu inguru izango dugu 160 gradutan, harik eta zotz bat sartu eta garbi ateratzen den arte.

## DENBORA-PASAK

Aurki itzazu bi marrazkien arteko zazpi ezberdintasunak.



## OTSAILEKO AGENDA

1, zapatua

**Billar txapelketa LEZAMA** Gaztelekuan

**Mahai-jolasak LEZAMA** Gaztegunean

2, domeka

**Athleticen partida ikustea LEZAMA**  
Gaztegunean

**Filma LEZAMA** Gaztegunean

4, martitzena

**Santa Ageda bezpera TXORIERRI**

6, eguena

19:00 **Gaztelumendin egindako indusketen emaitzak LARRABETZU**  
Ludoteka gaineko lokalean

7, barikua

**Mahai-jolasak LEZAMA** Gaztelekuan

**Eskulana: zenbakiakin margotzea LEZAMA** Gaztegunean

8, zapatuan

**Futboling Txapelketa LEZAMA**  
Gaztelekuan

**Eskulana: zenbakiakin margotzea LEZAMA** Gaztegunean

21:00 **Kontzertuak: Agur, Txakurak eta The Riff Truckers LARRABETZU**  
Hori Bai gaztetxean

9, domeka

**Athleticen partida ikustea LEZAMA**  
Gaztegunean

**Eskulana: zenbakiakin margotzea LEZAMA** Gaztegunean

13, eguena

19:00 **Literaturaz Berbetan Miren**  
Amurizaren **Pleibak LARRABETZU**  
Ludoteka gaineko lokalean

14, barikua

**Ping-pong txapelketa LEZAMA**  
Gaztelekuan

**Billar + ping-pong txapelketa LEZAMA**  
Gaztegunean

15, zapatua

**Mahai-jolasak LEZAMA** Gaztegunean

16, domeka

**Athleticen partida ikustea LEZAMA**  
Gaztegunean

**Athleticen pankarta egitea LEZAMA**  
Gaztegunean

18, martitzena

16:45 **Umeentzako irakurketa-saioak**  
(izena eman behar da aurretik)  
**LARRABETZU** Anguleri kultur etxean

19:00 **Zinekluba: Indarkeriaren oihartzunak LARRABETZU**  
Ludoteka gaineko lokalean

21, barikua

**Zineforuma LEZAMA** Kultura Aretoan,  
Gaztelekuak eta Gaztegunek antolatuta

22, zapatua

**Air hockey txapelketa LEZAMA**  
Gaztelekuan

**Eskulana: orri-markatzailea LEZAMA**  
Gaztegunean

23, domeka

**Athleticen partida ikustea LEZAMA**  
Gaztegunean

**Tailerra: eskumuturrekoak LEZAMA**  
Gaztegunean

26, eguastena

18:00 **Tailerra: elikadura eta menopausia DERIO** Kultur Birikan, izena ematea, otsailaren 14 baino lehen:  
688 654 649

28, barikua

**Billar + ping-pong txapelketa LEZAMA**  
Gaztegunean

**Maskarita Eguna LARRABETZU**

### Inauteriak Lezaman 1, zapatua (Martxoa)

11:00-13:00 **Puzgarriak eta tailerrak,**  
plazan (eguraldi txarra badago,  
frontoian)

12:30 **Koadrillak batzea,** plazan

13:00-15:00 **Taberna Ibiltaria**

17:00-19:00 **Mozorro desfilea,** Oihan  
Vegak girotua

19:00-21:00 **Matraka elektrotzaranga**



[www.aikor.eus](http://www.aikor.eus)

# hemen zure publizitatea falta da

Zure negozioari **IKUSGARRITASUN HANDIAGOA** eman nahi diozu?  
Hemen duzu aukera!

Zergatik aukeratu aikor?

**Tokiko irismena:** publiko konprometitu eta hurbil batengana iristen da.

**Diseinu pertsonalizatua:** publizitate-espazioak eskaintzeaz gain, neurrira egindako diseinuak sortzen ditugu.

**2025erako eskaintza eksklusiboa:** aprobe txatu gure tarifa bereziak eta zure aurrekontura eta helburuetara egokituko ditugun sustapen-paketeak.

INFORMAZIO GEHIAGO:  
[www.aikor.eus](http://www.aikor.eus)  
688 864 135

**aikor.**